

ARGIA

Zezenketarik gabeko Sanferminak?

PEÑAK, ALTERNATIBAK ETA LEGEAK AZTERGAI

32-35. orrialdeak

2.878 | 2024 / 07 / 07 | 4,00 €



**Ezkerra garaile
Iparraldean, baina eskuin
muturra estatuan**

6 | FRANTZIAKO HAUTESKUNDEAK



**Multinazionalek
gure ura nahi
dute haien datu
zentroak hozteko**

12 | INGURUMENA



**Bestelako mundu bat,
Arberatze-Zilhekoatik
zuzenean**

26 | KULTURA



%100 kotoi organikoz landutako kamiseta hau erosita, ekarpen ekonomikoa egingo diozu Amillubi proiektuari, baita ARGIA kazetaritza proiektu independenteari ere. Informazio + www.amillubi.eus

Prezioa **22 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
BIZUM bidez ordaindu daiteke.



azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **AITOR GARMENDIA**

Iritziak

- 21 | KARMELO LANDA
- 22 | ANE ABLANEDO
- 23 | MIKEL BASABE
- 23 | ARANTZA GUTIÉRREZ
- 24 | KARMELE GISASOLA

Finkoak

- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 44 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


MICROSOFT

12 | DATU ZENTROEK MILIOIKA LITRO UR LAPURTUKO DIGUTE

ChatGPTri galdera bat egiten diogun bakoitzean 0,5 litroko botila bat ur gastatzen dugu. Adimen artifizialak ur kontsumoaren leherketa ekarriko du. Urko Apaolazak azaldu du Net Hurbil atalean.

Elkarrizketak eta erreportajeak

16 | PERTSONAIA | ANA IRIARTE

“Nekazaritzaren erritmoa ez dator bat gaur egungo gizartearen abiadurarekin”

Miel A. Elustondo

26 | KULTURA | EHZ FESTIBALA

Hazi berri bat erein da Arberatze-Zilhekoan

Gorka Peñagarikano

32 | GIZARTEA

Zezenketen kontrako estrategiak

Olaia L. Garaialde

36 | HEZKUNTZA | MAITE AZPIAZU, OINHERRI

“Haurren parte-hartzeak ezin du izan eserita eta hitzaren bidez bakarrik”

Mikel Garcia

40 | GORPUTZ HOTSAK | IGOR NABARRO

“Erotikan ere, ez dugu lortzen produktiotik ateratzea”

Olaia L. Garaialde

48 | KULTURA | “LIBURU AUSARTAK” JARDUNALDIA

Isilak, mutuak, zuriak... eta ausartak

Ainhoa Aldazabal


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirgoien,
Jon Torner, Julen Ugartemendia,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Manex Usarralde,
Mikel Garcia, Onintza Irueta,
Olaia L. Garaialde, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

 Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria


Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitara
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da
testuentzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.


 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA





Kazetaritza

Informazio eskubidea eta letra larriz idatzitako kazetaritza defendatzen ditugun guztiok WikiLeaksen sortzailearen askatasuna ospatu berri dugu. 14 urteko kalbario judizialaren ondoren, bere burua erruduntzat jo behar izan du estradizioa saihesteko. Argi esan behar da: Julian Assangeri bizitza izorratu diote kazetaritza egiteagatik. "Mendebaldearen segurtasunaren" izenean difamatu, jazarri, giltzapetu eta torturatu dute. WikiLeaksen filtrazioek munduari erakutsi zizkioten Afganistango eta Irakeko inbasioetan Mendebaldeak egindako ankerkeria kontaezinak. "Bekatua" interes publikoko gaiak argitaratzea izan zen, kosta ahala kosta botereak nahita ezkututakoaren gainean argia jartzea. Inork ez luke minutu bat bera ere espetxean igaro behar informazioa publikatzeagatik. Horregatik Pablo Gonzálezek ere libre egon behar du, jada.

📍 M. TSIKAS/EFE/EPA 📍 AXIER LOPEZ


Botoen %34 lorturik, eskuin muturra da Frantziako Estatu mailako garaile handia

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Eskuin muturreko RN alderdia da Frantziako Legebiltzarrerako hauteskudeen lehen itzuliko garaile handia. RN alderdiak %33,15 jaso du, ezkerreko Fronte Popular Berriak %27,99 eta Macronen Ensemble alderdiak %20,04.

Azken urteetan sekulako indarra hartzen ari da eskuin muturra Frantziako Estatuan, eta ekainaren 30eko bozetan baieztatu egin da alderdi nagusien artean sendoturik dela: 2017an %13,20 lortu zuen RNk legebiltzarrerako bozetan, 2022an %18,68 eta aldi honetan %34,36. Hots, 2017an zortzi diputatu zituen, 2022an 89 lortu zituen eta lehen itzuli honetako emaitzak ikusirik, gehiago osoa lortzeko 289 diputatu lortzearena egingarri zaio. Hain zuzen, ageriko da uztailaren 7ko bigarren itzulia nola iraganen den, baina lehen itzuliko emaitzen arabera, baliteke 240 eta 270 aulki artean edo gehiago lortzea. Gehiago osoa lortu gabe ere, lehen indarra bihurtzeko aukera alimaleak ditu eta horrek ekarriko luke eskuin muturraren eta Emmanuel Macronen arteko kohabitazio gobernu bat osatzeko urratsa, lehen ministroaren kargua RNko Jordan Bardellak edo bere hurbileko batek hartuta.

Eskuin muturra boterera eramateko arriskua dela eta, ekainaren 9an Legebiltzarra desegin eta hauteskunde berrietara deituz "suarekin jolastea" leporatu zioten Macron presidenteari ahots anitzek -ezkerreko alderdiek, gehien-goko diputatu andanak baita eskuineko hainbatek ere-. Hori horrela, arriskua ikusirik, hautesleak bozkatzera joan dira eta parte-hartzea azken 25 urtee-




Jordan Bardella, RNren aurpegi ezaguna. Argazkia: AFP

tako handiena izan da: %66,7koa. Baina emaitzak ikusiz gero, argi da eskuin muturrak bere aldekoak ere mobilizatu dituela. %66,7ko parte-hartzearekin sekulan baino argiagoa du Macronek bere aurkako mezua. Zaplaztekoa bildu du: 2022ko lehen itzulian, botoen %25,75 jaso zuen, aldi honetan baino bost puntu gehiago beraz. 2017an gehiago osoa lortu zuen 351 aulki irabaziz; baina 2022koetan aurkakotasuna bozken bidez sentitu zuen, 106 aulki gutiagorekin eta horrekin batera gehiago osoa galduz. Ekainaren 9an Frantziako Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetara deituz bere gehiengo azkartzea zuen helburu, baina erabat tronpatu da: 60 eta 90 diputatu artean lortu ditzake.

Bigarren itzuliari begira, Macronek deitu du "argiki demokrata eta errepu-

blikarra izanen den batasun zabal" baten alde egitera. Lehen ministro Gabriel Attalek ere ondokoa argitu du: "Boto bakar bat ere ez RNri". Macronen aldeko Ensemble koalizioaren kontsigna zera da: hirugarren kokatu diren hautesbarrutietan hautagaitza kentzera, RNaren parean gelditzen denari garaipena errazteko. Hala ere, ez dute ofizialki ezkerreko Fronte Popular Berriaren alde egitera deitu, nahiz eta, berez, RNari bidea mozteko aukera bakarria ezkerreko hautagaitzarena izan.

Inskribatuen botoen %12,5 baino gehiago egin dutenak pasa daitezke bigarren itzulira -abstentzioa %33,3koa izanik, %19 baino gehiago lortu dutenak-. Buruz burukoak edota hiru hautagaien artekoak izanen dira bigarren itzuliak. Parte-hartze handia dela eta,



Parte-hartzea: % 66,7

sekula baino hiruen arteko lehia gehiago izanen da: 285 eta 315 hautesbarrutitan gertatu daiteke. Demagun, Ipar Euskal Herriko hiru eremuetan bada triangelu-formako lehia izateko aukera. Uztailaren 2ko 18:00 dute bigarren itzulirako hautagaitza aurkezteko azken epea. Bizkitartean eta astearte arratsaldea arte, negoziazioek eta boto konsignek garrantzia handia ukanen dute.

Lehen itzuliko emaitzen panorama argitu bezain laster hartu zuen hitza ezkerreko Fronte Popolar Berriaren izean Jean-Luc Melenchonek: "Gure konsigna simple da, zuzena eta argia: boto bat edo aulki bat gehiagorik ez RNarentzat". Ezkerreko blokea hirugarren kokatu den hautesbarrutietan erretiratze-ko manua eman die bere hautagaiei.

Eskuineko Errepublikarrak alderdiak, ordea, ez du boto konsignarik eman -nahiz eta bere buru den Eric Ciottik eta Europako hauteskundeko zerrendaburu François-Xavier Bellamyk argitu ezkerrearen eta eskuin muturraren arteko lehian RNaren alde bozkatzeko dutela-. Botoen %6,57 lortu du Errepublikarrak alderdiak, eta aurreikusten da 30 eta 50 diputatu artean lortu ditzakeela.

BIGARREN ITZULIARI BEGIRA

Eskuin muturraren indarra baieztatu dela, gehiengo osoaren garrantzia az-

Bigarren itzulian, 289 diputatu beharko lituzke RNak gehiengo osoa lortzeko (2022an 89 lortu zituen). Lorpen hori egingarri zaio

pimarratu du Marine Lepenek. 289 diputatu beharko lituzke RNak gehiengo osoa lortzeko (2022an 89 lortu zituen) eta egingarria zaio. Jordan Bardellak gogorki hitz egin du ezkerrearen aurka -"kaosaren agenteak", "mehatxu existentzialak", "supiztaileak"...-, eta RNren hautagaitza leunduz gainera: "Elkarbizitarako Lehen ministroa izanen naiz, Konstituzioa eta Errepublikako presidentearen kargua errespetatzen dituen, baina Frantziaren zerbitzura eta frantsesen zerbitzura ezarriko den politika zorrotzasunez eramanen duena".

577 hautesbarrutiei begiratu gero, RN alderdia lehen indarra atera da 297 eremutan, Fronte Popolar Berria 155tan -tartean, dira Ipar Euskal Herriko hiru hautesbarrutiak- eta Macronen

aldekoak bakarrik 62tan -2022ko lehen itzulian, aldiz, 204tan atera zen garaile-. Uztailaren 7ko bigarren itzulirako aste ttipi bat eskas dela, bigarren kanpainarako giro sutsua aurreikusten da eremu ezberdinetan. Eskuin muturra boterera heltzeko bezperan izanik, ze heinetakoa izanen da RNari bidea mozteko mezua? Lehen itzuliaren aitzineko mezuetan ez da nagusitu den mezua izan -alderantziz, gobernukideak zein *mainstream* komunikabide handiak ezkerrearen mamua eraikitzen eta hauspotzen aritu dira, "bi muturren arriskua" hein berean jarritz. Hori horrela, RN eta ezkerreko blokearen parte den LFI Frantzia Intsumisoa hein berean jartzeko "mekanismo jasanezin eta onartezin" horrekin bukatzeko deia egin die parekoei lehen itzuliaren biharamunean LFIko koordinatzaile Manuel Bompardek.

Botoen %50 baino gehiago lorturik, lehen itzulitik izendatuak izan direnak ere badira: 577 diputatuetatik 79 -tartean, RN alderdiko 39 eta ezkerreko Fronte Popolar Berriko 32-.

Dena dela, Legebiltzarraren osaketa berrirako bi aukera dira: edo RN eskuin muturrak gehiengo osoa lortzen du, edo Macronen alderdia are gehiago gutxiengoan izanen da, orain arte bezala bere politika aitzina eramateko zailtasun alimalean izanez. ●

Fronte Popular Berria izan da garaile Ipar Euskal Herrian

 ONINTZA IRURETA ETA JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Eskuin muturrari aurre egiteko bildu diren ezkerreko indarren aliantzak lortu du boto gehien Ipar Euskal Herrian. Ezkerreko aliantzak 11.000 botoko aldea atera dio bigarrenari, RN Batasun Nazionalari. Macronen Ensemble alderdia hirugarrena izan da. Fronte Popular Berria hiru bozka eremuetan lehen indarra izan da.

Fronte Popular Berriak Ipar Euskal Herriko botoen %31,98 (55.206 boto) eskuratu du. Eskuin muturrak, RN Batasun Nazionalak, %25,61 (44.214) bildu du eta Macronen Ensemble alderdiak %22,28 (38.470).

Fronte Popular Berria hiru barrutietan izan da irabazle. Laugarrenean Iñaki Etxanizek botoen %38,01 lortu du; bosgarrenean Colette Capdeviellek %32,30,

“Lurralde honetako adostasunak eta funtsezko baloreak babesteko momentua da”

eta seigarrenean Peio Dufauk %29,43.

Eskuin muturra hiru barrutietatik bitan bigarren indarra izan da, laugarrenean eta bosgarrenean. Seigarrenean, berriz, hirugarren tokian gelditu da, Macronen alderdiaren atzetik (laugarren barrutian ez da egon Macronen aldeko hautagaitzarik).


EH Bai alderdiak Fronte Popular Berriaren barruan hartu du parte hauteskunde hauetan. Emaitzak jakinda,

sare sozialetan azpimarratu du Ipar Euskal Herrian eta hiru barrutietan Fronte Popular Berria izan dela lehen indarra, eta era berean, kezka agertu du eskuin muturrak aurrera egin duelako: “Lurralde honetako adostasunak eta funtsezko baloreak babesteko momentua da. Denek arduraz jokatzera deitzen dugu”.

BIGARREN ITZULIARI BEGIRA

Baliteke hiru hautesbarrutietan hiru hautagaien arteko lehia izatea bigarren itzulian. Hain zuzen, hirugarren kokatu diren hautagaiak –Lassallek laugarrenean, Lasserrek bosgarrenean eta Lastecoueresek seigarrenean– jakitera eman dute lehian mantentzeko asmoa dutela. Uztaialaren 7an izango dute bigarren itzulia. ●

Gorri Fronte Popular Berria, urdin ilunez eskuin muturra eta urdin argiz Macronen Ensemble.



MATERIALISMO HISTERIKOA

Bizitzeko



UXUE APAOLAZA LARREA

Ikasturte osoan inork aipatu ez dituen kontuetan aritu ondoren, aktualitatearen erdigunera eraman nau, ustez, pneumonia batek, nola definitu ez dakidan hartuemana izan baitut Osakidetzarekin. Eta lehen deitik, ai ene, esperimentu batean egotearen sentsazio zirraragarria, telebistan hainbeste atera den zera hori probatzen ari nintzen, dokumental bat nintzen, eta dokumental bateko kameraren jarrera ezaxolatia hartu nuen: protagonistaren heriotza ondorio posible bat zen, ez probablea, baina bai gertagarria, merezi zuen adi egotea, zergatik bestela aukeratuko zuten dokumentalerako. Askok hasiko genuen dokumentala lehen deiarekin, gehienak, berez, ez ginen hilko, baina, agian, ni nintzen "ikusten?" kasua. "Plaka atera izan baliote", "medikuak ikusi balu". Ez dakit zertarako, hori ere egia da; izan ere, euskal gizarteak mezu oso argiak eman omen baditu ere azken hauteskundeetan, besteak beste osasungintzari buruz, ni mezu argi horiek dezifratu ezinik nabil. Nik neuk, egia esan, gizarte osoa izan gabe, badakit, baina kideetako bat izanik, ez nuen mezu batere argia eman; nola, zein bozkaren bidez.

Osasun zentroko itxaron gelan denok Vietnamgo beteranoak genirudien (gure imaginarioan ez dugu landu Vietnamgo beteranoa, edo goizegi da jartzeko), bakoitza beste dei batzuen zain utzi gintuzten gure deiak eta deiak eginda, minak, Pradalesek dagoeneko sumatzen direla esan zuen hobekuntzei sor, medikurik ikusi gabe, bat birikari heltzen, alabari bestea, medikuari txartelean sartzea ahaztu zitzaion errezetaren hutsuneari bestea, "nire aurretik pasatzen ari zarete geroago iritsitako guztiak". Kostunbrismoak mina ematen du, zentzu askotan. Eta dokumental honetatik pasa diren pertsoneri entzunda, profesionalei barne, ez dut uste ados jarriko ginatkeenik. Ezta gutxiagorik ere. Eta itxarongela horretan sekula harrapatuko ez genukeen herritarra kontuan hartzen badugu, gutxiago. Gizartea ez ginatke ados jarriko. Agian, horregatik eman genien botoa alderdi desberdinei, edo bati ere ez.

Osakidetza erdigunera ekartzen bada, zerbait gehiago da Osakidetza baino. Pradalesek lasai zirudien bere lorategian (euskaraz, urduritasun uneetan ikasitakoa ateratzen duenean Urkullurena uste genuen "egin" indartzailea ateratzen zaio), gizarteari entzunez zioen, mezu argiak: kudeaketa lan batek konpon dezake bera entzuten ari dena. Osakidetza "dialektika partidistatik eta eztabaida politikotik kanpo" utzita. Horiek dira egokitzeko aldaketak. Pentsatzen dut, agian, balioko dutela neumonia diagnostikatu eta hogeiei egunen ondoren nire medikua ikusi ahal izateko. Eta "ikusten?" gutxiago gertatzeko. Ados gaude horretan. Ados egoteko bozkatu badugu. Ni estoizismoz nire heriotzak dokumentatzen jarraitzeko prest, fronte guztietan, adina izango da: ea norbait konfrontaziora eta disrupziora animatzen den. Bizitzeko. ●

EZ HANKA EZ BURU

 ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Ikasketa komunitate irekiak



DIANA FRANCO

Bada pertsonok geure ezagutzak eta esperientziak partekatzeko aukera dugun eredu bat, oso gogoko dudana; eredu honetan ikasi nahi duen edonor ongi etorria izaten da, beti ere komunitatearen izaerarekin errespetuz jokatzeko badu. Ikasketa komunitate irekiak dira. Gogoko dut egitura hauetan botere harremanak, oro har, eragotzi egiten direla, eta partaideek bilatzen dute komunitate ezberdinen baitan lantzen den ezagutza jasotzea eta ematea. Komunitate hauek fisikoan zein digitalean eman daitezke, eta askotan jokabide kode bat partekatzen dutela joatan zara ulertzen eta zeureganatzen, batzuetan idatzita ez badago ere. Ni zenbait "katxarre" komunitatetan ibili izan naiz, sartu eta irten egiten naiz, dudan denboraren eta ikasteko gogoan araberak. New York Resistor-en jokabide kodea oso gogoko dut, batez ere honako paragrafoa: "pertsona guztiak galderak egiten, gauzak frogatzen eta akatsak egiten eroso sentitzea nahi dugu". Bizitzan ikusten joan naizena ikusita, ikasketa prozesuan akatsak egiteko aukera gehien dituztenak dira ezagutza maila altuenak lortzeko gaitasun handiena lortu dutenak. Ikasketa komunitate irekiak berezkoak dituzte esplorazioa eta akatsak, eta horri gehituta zure jakin-mina partekatzen duten pertsonekin alderatzeko aukera dagoela, salda ederra ematen da. Librezale.eus taldeak Software Libre zalantzak izeneko kanala jarri zuen martxan orain dela zenbait urte, Matrix eta Telegram bidez, eta hor partekatzen denarekin izugarri ikasten da. Ni ez naiz aktiboa taldean, baina beti botatzen diot begiraturtxoa, gauzak ikasteko. Bestalde, datorren irailean 26tik 29ra, Errenteriako Gaztaño Auzoan 2024ko hackmeeting.org egingo da. Bi kasuetan, teknologien inguruan modu kritikoa pentsatzen eta egiten da, eta gai horien inguruan hausnartzeko profil anitz batzen dira. Beraz, ikasketa komunitate irekietan hasierako urratsak ematen hasteko badugu aitzakia, hori bai, beti ere, ikasketa ibilbide guztietan bezala, indarrak eta espektatibak ondo neurtuta. ●



EBA

Ipar Euskal Herriko lehen Emakumeen Etxea

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Ipar Euskal Herriko lehen Emakumeen Etxeak atek zabalduko ditu ondoko hilabeteetan Urruñan. Horren berri eman digu Véronique de la Devèze militante feministak.

Mugimendu feministak aspaldian amesten zuenaren gauzapena da hau. "Badu sei urte horrekin gabiltzala. Hego Euskal Herriko Emakumeen Etxeen ereduari inspiratzen gara, Montreuil eta Saint-Brieuc hirietakoei ere begiratu diegu. Hau da, elkarte modura funtzionatuko duen gune feminista bat bezala irudikatzen dugu gure Emakumeen Etxea. Indarkeria pairatzen duten emakumeen harrera, sostengu eta laguntza gunea izanen da, baina horrez gain, Emakumeen Etxea ahalduzko espazio bat izatea nahi dugu. Heziketa popularra, ekimen parte-hartzaileak, formazioak, erakusketak, konferentziak... Askotarikoa izanen da eskaintza".

Urruñan kokatua izanen da, baina "Euskal Hirigune Elkargoa hamar eremutan banaturik da eta hamar Emakumeen Etxe edo behintzat permanentziarako gune izatea da helburua. Hain zuzen, ez dira behar berak Zuberoan, Baionan ala Urruñan. Erran behar da nahitara ez garelako Baionan kokatu, betiko zentralismo horren kontra eragitea badelako gure gogoetaren baitan. Garapen eta koordinazio lan hori bideratzeko nahiko genduzen langile bat lortu, baita denbora erdiz ariko den

animatzaile bat ere. Batik bat, militante feministen parte-hartzeari buruzko aitzina egingo duen proiektua izan nahi du. Aurrekontua borobildua dugu, orain dirulaguntza eskaerak egin behar ditugu departamendu mailan, European... Itzalean egindako lan handia bada hor".

MARTXAN DAGOENEO

"Gaur egun, hamabost bat laguntzaile gara oinarrian, eta inguruan laguntzeko prest den jende andana bada. Zabalduriko galdeketa erdiak baino gehiagok erantzun digu laguntza emateko gogoz dela. Protokolo bat dugu landurik, hain zuzen, proiektuan ahal bezain eroso sentiarazi nahi ditugulako heldu berriak. Aspaldian abiatutako lan batera sartzea ez da baitezpada erraza, eta ekimena eskuragarri eta eroso jartzearena da esku artean dugun erronketariko bat. Karta bat ere osatu dugu, kide eta parte-hartzaileentzat, baloreetan bat egiten dugula bermatzeko asmoz. Hainbat lan talde martxan dira: koordinazio orokorra, komunikazioa, programazioa, partaidetzak, finantza iturriak...".

Véronique de la Devèzek nabarmentzen du "mugimendu feminista aldarrikatzaile eta indartsu bat bizitzaren une historiko batean garelako, beti ere parean horrek dakarren fronte kontserbatzailearekin, emantzipazio mugimendu orok hori dakarrelako". ●

Polizia gehiegikeria

Martxoan, Realaren eta PSGren arteko Donostiako futbol partidaren testuinguruan izandako istiluetan 44 urteko emakume bat oso larri zauritu zuten, ustez foam jaurtigailu batekin. Bideo batek orain azalera duenez, lurrean zela, polizia batek Realeko zaleari ostikoa jo zion. Gogoratu behar dugu Amaya Zabartek jasotako kolpeak odol isuria eragin ziola eta denbora luzez ZIUan ingresatu behar izan zutela. Hiru hilabete pasa direnean, erasoa oraindik argitu gabe dago.

Turismoa

“Kaleetatik ezin pasa”, hondarribiarrak “masa turistiko honen guztiaren ondorioak pairatzen” ari direla-eta, turista taldeak 25 pertsonara mugatzeko mozioa aurkeztu du udaleko alkatetza duen Abotsanitz alderdiak: “Azken urteetan agintariak bilatutako hiri-eredua gainezka egiten ari da”. Donostian, joan den apiriletik 25 lagunetara murriztu dute turista taldeetako gehieneko pertsona kopurua, eta bide bera jarraitu nahi dute Hondarribian.

Pirinioak

Pirinioetako alkateek salatu dute “noraezean” dagoela despopulazioari aurre egiteko Nafarroako Gobernuaren plana: “Gure ondorioa da gaur egungo Nafarroako Gobernuak ez duela Pirinioetako Planean sinesten, eta bertan behera uzten duela planaren garapena. Tresnarik gabe uzten gaitu, elkar gobernanzarako aukerarik gabe, eta okerrena, espero ez genuen atsekabe sententzioarekin”. Neurri zehatzak exijitu dizkiote Gobernuari.

Bolivia

Luis Arce Boliviako presidentek armadaren “mugimendu irregularrak” salatu ditu. Komandante ohi bat La Paz hiriburuan dagoen Quemado jauregia hartzen eta estatu kolpea ematen saiatu da hainbat ibilgailurekin, baina inork ez dio babesik eman eta azkenean atxilotu egin dute. Egoera politikoa nahasia da Bolivian, 2019an Jeanine Añez senatari ohiak AEBen laguntzarekin estatu kolpea eman zuenetik –gaur egun espetxean dago horregatik–.

Pilota

50 bat euskal pilotarik uko egin dio Espainiako eta Frantziako selekzioarekin jokatzeari. Joan den astean, elkarretaratzea egin zuten Hendaiako Beltzenia frontoian, Euskal Herriko Euskal Pilota Selekzioaren Aldeko Mugimenduak deituta, eta eragile ugariaren babes zabala jaso zuten. “Gure nazioaren koloreekin eta gure ereserkiaren doinupean lehiatu nahi dugu”, adierazi zuten, eta “Euskal Herriko selekzioaren ofizialtasuna” aldarrikatu zuten ekitaldian.

Harrotasuna

Ekainaren 28a LGTBIQ+ Harrotasunaren nazioarteko eguna dela-eta, manifestazio, aldarrikapen eta festa ugari izan da han-hemenka. Eguna agintariak beraien intereserako baliatzen dutela ere salatu du kolektiboak. Ehgam-ek, esaterako, enpresek egun hau “kapitala metatzeko” helburuz erabiltzen dutela kritikatu du, eta Israel egiten ari den genozidioa hipzide, eskatu du “ez daitezela LGTBIQ+ eskubideak erabili sarraskia zuzitzeko”.

LURRALDEA ETA ARKITEKTURA

Txibato



ULA IRURETAGOIENA

Donostiako Alde Zaharreko taberna askoren pintxoak alde zaharrean sartzeko baimena duen furgoneta batean datoz zerbitzua ematera. Beste tabernetan, prestatzen duten tortilla patata pintxoak jateko, goizeko furgoneta alde zaharrean sartzen den orduan ilara egin eta txanda hartu behar da. “Bask-txiskeik” gazta-tartazko denda bat ireki dute eta ospeko postre bilakatu da, basque cheesecake idatzirik fenomeno gastronomiko bilakatu da.

Donostialdeko sagardotegi ezagun bat, publizitate handia duen horietako bat. Aparkaleku handi bat, sagar-lore hotel bat, sagar-bar lokal bat, sagardo mota desberdinak, sagar-fan kamisetak, sagarraren euskal kultura zabaltzeko espazio bat garai batean sagar ekoizpena eramaten zuen familiaren eraikinean. Museo txikiaren eskaparatean bodegoi batek agurtzen zaitu, plastikozko intxaur, txuleta eta sagarrez osatua. Lurraldearen zuri beltzezko argazkiek apaintzen dute sarrera. Sagardotegia kokatzen deneko lekutik Donostialdeko saihesbide scalestrixa ikusten eta entzuten da. Inguruko lurretan sagardotegiaren inperioa zabaltzen da. Publi-bideo bat erakusten dute, sagardotegia tradizio modernizatua dela iragartzeko. Honek esan nahi du ekoizpenaren eskala aldatu dela eta prozesua mekanizatu egin dela. Sagardoaren likidua inguruko zortzi ekoizleren uztekin egiten dute, eta klimaren gorabeherak dirrela eta uzta eskasa denean, Normandia eta Alemaniatik ekartzen dituzte sagarrak. Inguruetan sagarrondo batzuk daude bisitariak sagardoaren euskal sagar barietateak gertutik ezagutzeko; arraza beltzeko langile bat ikusten da lanean.

Euskal folkloreak edo euskal identitatearen “eman eta zabal ezazu” jarduerak egitekoak bagara, eskaintzen ari garen errealitate distortsionatuaz jabetzea garantzatsua iruditzen zait.

Publizitateari iruzurra egitea naturalizatu dugu, saltzeko unean produktua desitxuratzea onartzen dugu eta salmentek gora egiten dutenean, maltzurkeria legitimaturik gelditzen da eta salatariak bufoi papera du lurraldearen antzerkian. ●

CHATGPT-K HAU ERE BADAHI: DATU ZENTROEK MILIOIKA LITRO UR LAPURTUKO DIGUTE

Adimen artifiziala denen eskueran jartzearekin, multinazional teknologikoek *cloud* datu zentro erraldoiak eraikitzeke planak ugaritu dituzte. Ekipamendu informatikoz betetako mega-fabrikon aztarna ekologikoa ikaragarria da: elektrizitateaz gain, milioika litro ur behar dute euren sistemak hozteko. Errekak eta geruza freatikoak kaltetzen ari dira, mugarik gabeko hazkundearen ondorioz.

URKO APAOLAZA AVILA

Amazonek duela hilabete pasatxo egindako iragarpenaz akordatu da irakurlea seguruenik: Aragoi dituen datu zentroak sei bider handitzeko 17.500 milioi euro gastatuko dituela esan du. Nafarroako Erriberatik apenas ehun kilometrora, alor horretako munduko *hub* edo gune handienetako bat sortuko du Amazon Web Services filialaren bidez.

Baina ez da halako asmoak dituen multinazional bakarria. Beste *big tech* batek –erraldoi teknologikoei deritze horrela–, Microsoftek, berriki esan du “*cloud* eskualde” bat sortu nahi duela Madrilen dituen hainbat azpiegitura elkartuta, “adimen artifizialeko soluzioak” eskaintzeko bere bezeroei, tartean Mapfre, Naturgy, Telefónica, baita Nafarroako Gobernua ere –duela gutxi María Chivite presidentearekin sinaturiko kolaborazio hitzarmenaren bidez–.

Adimen artifizialak, klik batean bizitza erraztuko omen digun horrek, eredu sozial jasangaitz bat ezkututzen du, eta lehen arazoa ekologikoa da: informa-

zioa biltzeko muga barik hazten ari den *cloud* edo laino ustez birtual eta etereo horrek fisikoki irauteko energia itzela behar baitu, mineralen erauzketatik hasi eta datu zentroen zerbitzariak martxan edukitzerainoko kate guztian.


Chatbotekin funtzionatzen duten ChatGPT eta antzeko aplikazioek, sekulako konputazio-gaitasun eskaria sorrarazi dute. Horri erantzuteko, Aragoikoa bezalako “hiper-eskalako” datu zentroak ari dira eraikitzen han eta hemen. Datu zentro horiek ez dira orain arte ezagutzen genituenak bezalakoak: “Diferentzia ez dago taminan baka-rrik, baita boterearen kontzentrazioan eta erabilitako teknologian ere”, azaldu du Tu Nube Seca Mi Río plataformako aktibista den Aurora Gómezek Canal Red-eko *Al Ifo* eztabaida saioan: “Orain arteko zentroek energia izugarria behar zuten, eta aldiz, hauekin esaten dute energia gutxiago gastatuko dutela, baina horretarako ura kopuru izugarritan sartzen dute zerbitzariak hozteko”.

Gómezek eta bere ingurukoek plata-



forma sortu zuten Talavera de la Reina (Gaztela Mantxa, Espainiako Estatu) Metak erabaki zuenean hiper-eskalako zentro horietako bat jartzea Tajo ibaitik gertu. “Ni hemen baldin banago Mark Zuckerbergen erruz da”, azaldu dio aurkezleari. Talavera de la Reina hango poligono industrial baina handiagoa den eremu batean eraiki nahi du Whatsapp edo Instagram bezalako aplikazioen jabe den multinazionalak bere datu zentroa, eta milioika litro ur erabiliko ditu barruko zerbitzariak hozteko. Zentro horiek mantentzeko urtean batez beste 25 milioi litro ur behar direla diote, hiri handi batek behar duena adina.

Aragoiko datu zentroaren kasua antzekoa da. Hango presidente eskuindar Jorge Azcón Amazonen proiektuaren aurkezpenean esan zuen Aragoi “Europako Virginia” izatea nahi zuela: “Guri ikaragarriak iruditu zitzaizkigun hitz



Datu zentroek gero eta konputazio gaitasun handiagoa behar dute. Ikerketa batzuen arabera, 2027an adimen artifizialak Erresuma Batuak adina ur gastatuko du ordenagailuek isuritako beroa hozteko.

MICROSOFT

horiek –dio Gómezek–, zeren eta mugimendu sozial guztiek dakite munduan datu zentro gehien dituen lurraldea dela AEBetako estatu hori, eta idortuta utzi dutela guztiz. Virginian jendea hondakinen ura berrerabiltzen ari da edan ahal izateko, ur edangarri guztia datu zentroek eraman dutelako”.

Horrelako azpiegituren kontra Txilen, Uruguain, Herbehereetan, Irlandan edo Singapurren daramatzaten borroka erreparatu ditu Gómezek Canal Reden, eta gogorarazi du zenbait tokitan moratoriak ere jarri dituztela mar txan. Horregatik, Metaren Talavera de la Reinako proiektua erabili nahi dute Espainiako Estatuan ugaritzen ari diren –Madrilen eta Bartzelonan soilik, %500 gehiago– antzeko beste proiektuen arriskuez modu zabalean ohartzeko.

“Proiektu hauek guztiek aurrerapenaren eta enpleguaren ideia saltzen dute, eta kontra azaltzen bazara iraindu egiten zaituzte: ‘Ludita’ deitzen dizute”

XXI. MENDEKO LUDISMOA

Multinazionalak despoblazioa eta langabezia jasaten duten landa eskualdeekin jokatzeko ari direla salatu du Tu Nube Seca Mi Río plataformako kideak,

hango baliabideak lapurtzeko: “Egin zezaketene beste modu batean, ur gutxiago gastatuta, baina hau tekno-kolonialismo hutsa da”, dio. Amazonek, adibidez, Aragoiko Gállego ibaiko ura depositu batean bilduko du eta zuzenean hodi batekin konektaturik erabiliko du bere datu zentroetarako –gobernu autonomikoak obra guztia ordaindu du noski–.

Gómezek esperientziatz hitz egiten du. Nerabea zela, Gaztela Mantxako bere herrian gaur egun erabiltzen ez den aireportu bat eraiki zuten eta lurrak desjabetu zizkieten: “Kexatu ginen familiek ostrazismoa jasan genuen eta 25 urteren ondoren oraindik askok ez digute hitz egiten, ustez aurrerapena zekarren makroproiektu baten aurka jarri ginelako. Proiektu hauek guztiek aurrerapenaren eta enpleguaren ideia saltzen dute eta kontra bazaude iraindu

egiten zaituzte; 'ludita' deitzen dizute. Baina nik oso arro daramat hori, klase ikuspegitik lanean ari ziren pertsonak zirelako luditak, eta teknologiaz birjabetu nahi izan zutelako”.

Hitzaldiak ematen dituztenean, askok *teknosoluzionismo*-ra jotzen dutela dio: “Galdetzen digute: ‘Ezingo genuke honako teknologia erabili?’ edo ‘Ezin ditugu datu zentroak itsaso azpian jarri?’ ... Guk Eugeny Morozoven *La locura del solucio-nismo tecnológico* (Solucionismo teknologikoaren eromena, Katz, 2016) liburua-rekin kaskarrekoa jotzen diegu orduan: ezin dugu. Ezin ditugu teknologiarekin sorturiko arazoak konpondu teknologia gehiago erabilia. Pentsatu behar duguna da datu zentro horiek boterea zentralizatzen dutela, eta anarkiatik gatozen jendearentzat hori ez da batere ideia ona. Deszentralizatzea, ditugun datuen kontziente izatea, gure urrats guztietan burujabetza berreskuratzea... hori da egin beharko genukeena”.

UR KONTSUMOAREN LEHERKETA

Espainiako Estatuko agintariak etengabe zerrendatzen dituzte lurraldeak dituen abantailak datu zentroak eraikitzeko: “Europako zuntz-sare hobereena dugu, Amerikarekin eta Afrikarekin lotzen gaituzten itsas-hondoko kableak eta energia berriztagarri ugari”, azaldu dio El Diario.es egunkariari José Luis Escrivá Eraldaketa Digitaleko espainiar ministroak.



HERALDO DE ARAGON

ARAGOI Villanueva de Gállego herrian hiru datu zentro ditu Amazonek, Zaragozatik gertu. Azpiegitura hori sei bider handituko du milaka milioi euro gastatu eta Gállego ibaiko ura erabilia.

Baina beste tokietako ministro jaunak ere ari dira egiten Xenpelarri Hernaniko ferian betroia saltzean egin ziotena: Macronen gobernuan Ekonomiako kartera daraman Bruno Le Mairek, adibidez, “Europako lider” bihurtu nahi du Frantziako Estatua alor horretan.

Reporterre-n irakurri dugu Île-de-Franceko 7.000 biztanleko Wissous herrian Amazonek duen datu zentroa handitzeko asmoei buruzko *Data centers: leur consommation d'eau va exploser* (Datu zentroak: ur kontsumoa lehertuko da) erreportajea, Fabien Benoit-en eskutik.

Gaian aditua den kazetari eta dokumentalistak dioenez –besteak beste Silicon Valleyren kasua aztertu du liburu batean– proiektuaren sustatzaileak hitzeman du Wissouseko datu zentroak apenas gastatuko duela zazpi etxebizitzak adina ur: “Baina eztabaida zabalik dago, datu zentroen ur kontsumoa angelu itsu bat delako kasu askotan. Ekuazioa nahiko sinplea da –dio kazetariak–: datu zentroek beroa sortzen duten gero eta makina gehiago dituzte eta hoztu egin behar dira”. Horretarako, klimatizazio klasikoaz gain, ur zirkuituak daude, irekiak zein itxiak, baita



META / FACEBOOK

HIPER-ESKALA Azken belaunaldiko datu zentroak eskala handiagokoak dira, eta ustez energia gutxiago gastatzen dute baina horretarako ura kopuru handitan erabili, zerbitzariak hozteko. Irudian, Metak Tajo ondoan, Gaztela Mantxako Talavera de la Reinan egin nahi duen datu zentroaren errekreazioa, urez inguratuta.

Maoriek badute alternatiba: datu komunitateak

Mundu osoan eskala handiko datu zentroak eraikitzen ari diren bitartean, Zeelanda Berrian, maoriek guztiz kontrakoa egingo dute, eta teknologikoki garatuen dauden herrialdeei erakutsiko diete aurrerapena ikuspegi kontua ere badela. ARGIAko informatikari Asier Iturraldei esker jakin dugu horren berri.

"Iwi Māori-ak (komunitate maoriak) Iwi Māori-entzat egina, datuak biltzeko horrelako azpiegitura bakarra da munduan", halaxe deskribatu dute Te Pā Tūwatawata izeneko sarea, maori hizkuntzan aritzen den irrati eta telebista katean. 2025ean zabaldu nahi duten datu zentro honek maorien burujabetza digitala izango du kontuan. Horretarako "kaupapa" probes-

tuko dute –ezagutzan sakontzeko maoriek erabiltzen duten kontzeptu bat– eta "sarea konektatzeko zerbitzariak datuen bihotzean oinarrituko dira: marae-ak (leku sakratuak), elkarte sozialak eta beste iwi edo maori herri nagusi batzuk", azaldu dute.

Normalean datuak biltegi handitan egon ohi dira kokaturik, iturrietatik eta pertsonetatik isolatuta: "Kaupapa honekin datuak ostatatzen ari gara dagokien tokian, datuek esanahi garrantzitsu bat duten pertsonen babespean", diote ekimenaren sustatzaileek. Hala, inbertsio nagusietako bat izango da iwien gaitasunak lantzea datuak gordetzen dituzten toki horiek egoki administratu eta mantendu ditzaten.

urez lainoztatzeko prozesu termodinamikoak ere.

Benoiten ustez, paradoxikoa da energia kontsumoaren irtenbide "berde" gisa jartzea uraren erabilera masiboa. Zifra bat ematen du arazoari tamaina hartzeko: Googlek bere azkeneko ingurumen txostenean aitortu du urtean 28.000 milioi litro ur erazten dituela; horietatik bi heren datu zentroak hozteko dira, eta 2018tik %82 hazi da ur erabilera.

Baina, nahi bada, hizkera ukigarriago bat ere erabili daiteke: Kaliforniako ikerlari batzuek egindako esperimendu baten arabera, ChatGPTri galdera bat egiten diogun bakoitzean 0,5 litroko botila bat


Kaliforniako ikerlari batzuek egindako esperimenduaren arabera, ChatGPTri galdera bat egiten diogun bakoitzeko 0,5 litroko botila bat ur gastatzen dugu

ur gastatzen dugu. "Adimen artifizialak ur kontsumoaren leherketa ekarriko du", ondorioztatu dute. Konparaziorako, adimen artifizialak Erresuma Batuak adina ur gastatuko du 2027an, *Reporterre*-ko kazetariari azaldu diotenez.

Baina holako datuak tantaka iristen zaizkigu, besteak beste orain arte Google, Meta, Microsoft, Amazon, OpenAi, Apple eta beste erraldoi teknologikoak ez daudelako derrigortuta ur kontsumoari buruzko informazioa ematera. 2023ko hondarretan Europar Batasunean zuzentarau bat onartu da, eta ezarri du 500 kW baino gehiagoko gaitasuna duten azpiegiturek euren efizientzia energetikoari buruzko gardentasun txostenak argitaratu behar dituztela.


Ez da gutxiagorako, kalteak itzulezinezkoak izan baitaitezke, klima larrialdiarekin ura baliabide preziatua bihurtu den honetan: "Badakigu datu zentroen operatzaileak geruza freatikoak zultzen ari direla", dio erreportaje berean *Sous le feu numérique* (Su digitalaren pean) liburuaren egileetakoa den Cécile Diguete. Île-de-Francan, bereziki Wisous dagoen Essonne departamentuan, geruza hori gero eta maila baxuagoan dagoela antzeman dute.


Euskal Herri euritsua azpiegitura horien mehatxutik salbu dela uste duena has daiteke hori burutik kentzen. Badakigu Nafarroan Amazonek gutxienez "eskala handiko" bi zentral-fotovoltaiko eraiki nahi dituela horiei lotuta –horren berri eman genuen ARGIA–, "berriztagarri" etiketarekin apaintzeko bere energia kontsumoa; eta ezin ahaztu Bilboko portua dela itsaspeko zuntz kableen helmuga nagusietako bat Europan. Batzuk, "Bilbo-Nafarroa ardatza" izena hasi dira sartzan multinazionalen datu zentroak erakartzeko lehiaren tonbolan. Aurki ditugu hemen. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
zinkunegioptika.com







NEKAZARITZAREN ERRITMOA EZ DATOR BAT GAUR EGUNGO GIZARTEAREN ABIADURAREKIN



Titulu handia iruditzen zaio “nekazari”. Bera “mahastizain” omen. Baina, izan, da nekazari mahastizaina. Eta da, izan, emakume nekazari mahastizaina. Eta mahatsaren orpotik mama goxoa nola, halaxe aletu ditu Ana Iriarte Bañezek lanbidearen... ez beti penak, ez beti nekeak.

 MIEL ANJEL ELUSTONDO  ZALDIERO / ARGIA CC BY-SA

Nekazari zinelakoan jo nizun deiadarra, telefonoz, baina bizkor zuzendu ninduzun, esanez mahastizaina zarela. Nekazari ez, beraz?

Kar, kar... Nekazari hitz berezia da. Badu pedigria ere! Gure herriko plazan nekazaria naizela erranen banu, irri eginen lukete hamarretik bederatzik. Baztanen, nekazariak dira familiatik nekazaritza esplotazio bat jaso dutenak, horretan segitzen dutenak, abeltzaintzari lotua den nekazaritza. Lotsa ez dakit den, baina ez zait eroso egiten nire burua nekazari aurkezten. Berriz, mahastizain aurkezten dut nire burua, konplexurik gabe. Hitz horren atzean erosoago sentitzen naiz, baina, bertzerik gabe, hemen nekazaria arras lotuta dagoelako abeltzain-

tzari, etxaldea gurasoetatik jaso dutenen lanari. Horregatik zait erosoago “mahastizain”, “nekazari” baino.

Hortaz, zuk ez duzu etxetik jaso lanbidea...

Ez. Nire bikotekide Iñaki [Bengoetxea] eta biok 2013an hasi ginen proiektu honetan. Nekazaritza ikasketak egin genituen Iruñean, [Nafarroako] unibertsitate publikoan, eta, gero, halako batean, teoriatik praktikara egin genuen. Ikasketak burutu eta teknikari lana egin nuen Iruñean bertan, hamar bat urtez. 2008an, berriz, orduko krisiarekin batera-edo, afera larritzen ari zela ohartu ginen, eta Arizkunera bizitzera etortzeko eta lurrari lotutako proiektua martxan jartzeko erabakia hartu genuen. Paper-

lanak eta bertze, egin, eta 2013an egin genuen lehenbiziko landaketa.

Mahastiak, hala ere. Baztanen, berriz, hortxe dira beti ganadua, gazta, esnea, txerrikia... txokolatea... baina, mahatsa?

Ez da ohikoa, ez, mahastia Baztanen. Hala ere, ordenantza zaharretan bada mahastien erreferentziarik, garai batean ardoa egiten baitzuten batzuek, etxeko kontsumorako. Eta, bertzalde, Amaiurren bada Mahasti izeneko paraje bat. Arraro egiten da Nafarroako Kantauri isurialdean mahastia irudikatzea, baina mahastirik bada isurialde horretan. Hortxe dugu Irulegi, eta, egia errateko, aunitz begiratzen dugu Irulegira, hemen berean daudelako, eta lurrarekiko duten



Ana Iriarte Bañez

1977, ARIZKUN



Nekazaritza ingeniari-tza tekniko-
egina Nafarroako Unibertsitate Pu-
blikoan, teknikari autonomo egin
zuen lan Iruñean hamar urtez, baina
Arizkunen da 2013az gero, mahasti-
zaintzan, lurraren aldeko defentsan
eta lurrari lotutako lan eta bizimo-
dua suntsitu nahi duten proiektuen
kontra, emakume nekazariaren
alde, euskararen alde... erran-me-
rran erraz eta diskurtso merke guz-
tien kontra, aitzinat.

harremana miresgarria iruditzen zai-
gulako. Hala ere, Nafarroako mahasti-
gintzaren eredu nagusia, mahastigin-
tza mediterranea da.

Eta, esan duzu, zuena Kantauri isurialdekoa da...

Bai, eta eskala ttikikoa. Hori ere arras
presente dut, arras inportantea da,
gauza guzietarako. Orain hiru hek-
tarea lantzen ari gara. Gerora, izan
daitezke hiru eta erdi, edo lau... baina
horixe da gure neurria, ez handiagoa.
Egia da jendeak aunitzetan erraten di-
gula: "Baina funtzionatzen badu, hek-
tarea gehiago hartu eta produkzioa
handituko duzue, ezta?". Eta erantzun-
a da ezetz. Funtzionatzen badu, fun-
tzionatuko du, eta biziko gara. Kito.
Hektarea gehiago hartzeak denetarik
gehiago hartzea erran nahiko luke.
Gizarte honetan horixe dugu buruan
txertatua, beti gehiago eta handiago,
baina gure helburua ez da hori, gure
helburua da Iñaki eta biok honetatik
duin bizitzea.

Lortuko duzue?

Uste dugu baietz, pixkanaka-pixka-
naka aitzina egingen dugula. Baina,
iaz, adibidez, urte txarra izan genuen.
2022a arras ona izan zen. Iazkoa ez.
Hezetasun handia izan zen, eta xar-
taxa izan genuen, gorrina, eta horrek
ere izugarritzko egurra eman zigun. Ari
ginen, ari ginen... eta, iaz, kolpe! "Ea ez
garen kapaz hau aurrera ateratzeko!",
pentsarazi zigun. Baina bagoaz.

Nola oroitzen duzu zuen proiektuaren hasmenta?

Proiektuarekin bueltaka hasi gine-

nean, ea aukerarik egoten ahal zen-eta
pentsatzen, lehenik EVENara [Nafa-
rroako Mahastizaintza eta Enologia
Estazioa] erakunde publikora jo ge-
nuen, aholkularitza tekniko eske:
"Ideia hau dugu buruan, zer iruditzen
zaizue? Erokeria da, edo bada modu-
rik?". Eta erran ziguten aspaldi ari
zirela Baztanen landaketa frogatzen
egiteko asmotan. Bi aldeon asmoak
elkartu ziren, beraz, eta hitzarmena
sinatu genuen. Lurrik ez genuen, eta
errentatu egin behar izan genituen.
Gero, erakunde horretakoek landa-
re batzuk jarri zituzten, ikerketarako,
barietate diferentek-eta, guk bertze
batzuk, eta martxan jarri ginen. Frai-
soron ere izan ginen, hainbat ikastaro
egiten, eta mahastigintzari buruzko
gauza zehatz batzuk lantzeko, eta Iru-
legira ere aunitz jo izan genuen, han-
go mahastizainei galdetzeko, ikusi eta
ikasteko.

Bazenuten kezka, zuen asmoa erokeriatzat hartuko ote zuten, esan duzue.

Bai. Hasieran, ideia genuela erran,
eta jendeak erokeriatzat hartu zuen.
Lehenbizian bazkalondoko tertulian
ideia komunikatzen hasi ginen, kar-
kar eta kur-kur, baina serio pentsa-
tzen hasi ginenean, eta aitzina egi-
teko erabakia hartu genuenean, eta
jendeak ere benetan ari ginela ikusi
zuenen... laguntza eman zigun, izu-
garrizko laguntza, egia erran. Jendea
laguntzera etorri zaigu, landaketak
egitera, mahats biltzera... Sinetsi edo
ez sinetsi proiektuan, baina laguntze-
ko prest izan da beti jendea. Alde ho-
rretatik laguntza izugarria izan dugu.





Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatu ohi da urriaren 15ean eta, iaz, mahai-ingurua eginez zelebratu zenuten Baztanen. Han zineten hiru emakume nekazari: Maria Torres, Leire Milikua –Lur gainean, itzal azpian (Txalaparta, 2022) lanaren egilea–, eta zu zeu... Emakume nekazariaren izatea azpimarratu zenuten, besteak beste.

Nekazaritza ez da estereotipoetatik libratzen. “Nekazari” hitza erran, eta gehienei gizonezkoaren irudia etorriko zaie gogora. Emakumeak ere nekazariak izan dira, ordea, eta dira, eta espero dut izanen direla, baina beti bigarren planoan egon dira. Beren lana ikusezina izan da, bertze arlo aunitzetan bezala. Ematen du gizonaren laguntzaile direla, beharrezkoa da gure izatea markatzea, eta “emakume nekazaria” erratea: ni ez naiz inoren laguntzailea, ni emakume mahastizaina naiz, autonomo erregimenean ari naiz lanean, lehenbiziko sektorean. Zoritxarrez, oraindik hori azpimarratu beharra dago.

Estereotipoak beti. Zer irudi duzula sumatzen duzu?

Lan bera gizonezko batek egin, edo emakume batek, diferente irakurtzen da. Maiz tokatu zait nire emakume mahastizain izatea aldarrikatzea, jendeak ez baitzaitu langile bezala ikusten, ez zaituzte langilearen irudiarekin lotzen: “Etxeko lanak, haurrak, eta mahastian pixka

bat” lan egingo bagenu bezala. Eta, egia erran, horrela ikusi izan da emakume baserritarra mendez mende. Errateko, proiektua hasi genuenean, epe luzekoa zenez, beharrezkoa ikusi genuen etxean bietako batek kanpoko soldata ekartzera etxera, egunerokoan aitzinat egiteko.

Kasu honetan, Iñaki ari da kanpoan, “etxean”, mahastietan zu.

Biok bilatu genuen lana, eta Iñakiri irakaskuntzan aritzeko aukera sortu zitzaion. Bera hasi zen soldatapeko lanean eta mahastian, eta ni egin nintzen autonomo mahastizain. Aldrebes balitz, gizonezkoa mahastizain, inork ez luke zalantzarik egingen. Bera mahastizain izan litzateke, nekazari, ohore guztiek. Baina ni jendeak ez nau berdin irakurtzen, eta nire emakume langile izaera aldarrikatu beharra tokatzen zait.

Eta tokatu zaizu, dakigunez.

Zenbait aldiz, bai. Hala ere, bi kasu gel-ditu zaizkit gogoan. Lehenbizikoan, Frailoroko ikastaro horietako bat eta gero, kimatzeko aitzurrak saltzen zituzten toki batera sartu ginen Iñaki eta biok. Nik eskatu, eta dendaria –gizonezkoa–, aitzurrak atera eta Iñakiri erakusten hasi zen! Ikusezin bihurtu nintzen! Marmarka atera nintzen, haserre, dendariarekin eta nire buruarekin, momentuan ez nuelako erreakzionatu...

Eta bigarren kasuan?

Bigarrenean, Malerrekako burdin den-



LEHENENGO UZTA

“2013an egin genuen lehenbiziko landaketa, eta 2015ean eta 2018an landaketa gehiago egin genituen. Lehenbiziko uzta, berriz, 2016an bildu genuen. Gauza ttikia izan zen, baina ordukoak dira gure Baztango Xurie-ren lehenbiziko botilak, 400 botilaledo. Orain, azkeneko lur eremua ez da ekoizten ari, baina helburua da hiru hektareak ekoizten hasten direnean 10.000-12.000 botila ateratzea. Guretako, bada produkzioa, baina bertze edozein bodegarendako, huskeria. Pila bat ematen du –eta guretako hala da–, baina ttikia da”.

TXURIA...

“Irulegin xuria, gorria eta beltza egiten dituzte. Guk, berriz, xuria egitera jo genuen. Iruditzen zitzai-gun xuria egitea errazago zela, bai lantzeko garaian, baita mahastian ontzeko sasoiaren ere. Hemen ez da Caparrosen izaten ahal den bezalako eguzkirik, adibidez. Muga batzuk baditugula, erran nahi dut, eta muga horien barnean xuria egitea errazago da. Horrek ez du erran nahi [ardo] beltza egiteko zenbait landare jarriko ez ditugula, baina xuria da oinarria”.

ARDOA, EUSKARAZ

“Baztango Xurie da gure ardoa, baina hiru barietate ditugu. Gure proiektuaren ardatza da Kiribil, biltegi herdoilgaitzezkoetan egiten duguna. Kantitate ttikietan, egurrezko kupeletan, egiten ditugu bertze bi ardo: Betarte, eta Okoro. Kiribil da mahatsondoaren kiribila. Okoro, Erdiz aldeko mendia. Eta Betarte, bertze mendi bat, ‘Alkurruntzen ondokoa’, jendeak erratan duenez. ‘Ondoko’ mendi horrek izena du Betarte”.

da batean izan zen. Deposituak behar genituen, eta, goizean, Iñakik deitu zuen depositurik ba ote zeukaten galdezka. Eta baietz, eta bila joan nintzen arratsaldean. Dendara sartu, depositua eskatu, eta berak: “Baina gaiaz nor arduratzen da?”. Erran nion Iñakik deitu zuela, baina biok ari ginela lanean. Eta berak: “Baina ulertzen duzu honetaz?”. Eta erran nion: “Hori zer diozu, emakumea naizelako?”. Eta ezetz, eta hau eta hura. Erakutsi zizkidan deposituak, eta eman nizkion zehaztasun guztiak, baina bera dena zalantzan jartzen: “Seguru zaude?”. “*Siemprelleno* bat nahi dut, 300 litrokoa”, nik. Eta berak: “*Siemprelleno* deitzen diozu”... eta katalogoan begiratu, eta izen horixe zekarren. “A, bai, izen horixe du”, berak. Eta nik: “Aurreiritziak zer diren!”. Horrelako egoerak bizi beharra, oraindik, gogorra da. Baina erreazionatu beharra da, bertzenaz ez dugu aitzinat eginen.

Hitz beste eginez, zer dugu Baztanen? Batean, harrobi proiektua Erdizen; bestean, berdin, harrobia Arizkunen. Han, Lekarozen, Aroztegia; hemen, makroproiektua...

Landa eremua bertze helburu batzuetarako erabilgarri den eremua da. Neka-

Azken hitza

ZIURGABETASUNA

“Ziurgabetasuna hor da beti. Mahatsa biltzeko prest, igoal, eta harria! Horrek erran nahi du urte osoko ekoizpena bertan behera gelditu daitekeela. Ziurgabetasun handia da, kezka handia, eta batzuetan erraten duzu, ‘baina, zertarako?’. Bertze batzuetan, aldiz, ez duzu aitzinat egiteko zalantzarik”

zaritza, berdin, bertze helburu batzuetarako erabilgarri den jarduera bat. Beti bertze helburuetarako! Erdizeko proiektua, adibidez. Lur komunala da, baztandar guziena, eta etorriko da kanpoko multinazional bat, bere onura propiorako eremu hori esplotatzera, eta desageraraztera! Aunitzetan, langilea erabiltzen da: “Sortuko ditugu 39 lanpostu!”.

Horretan dira beti, lanpostuak sortuko dituztela erranka denak...

Baina Erdizek mendez mendez sortu ditu lanpostuak! Eta sortzen segituko du. Baina horiek ez dira ikusgarriak, ordea.

Landa eremua bigarren mailakoa da gizarite honetan, eta nekazaritza, bigarren mailako jarduera. Eta jasangarritasun eta iraunkortasun diskurtsoak egiten dituzte! Eta ustez *progre* diren politikariak, Udalez Gaingiko Proiektuak bata bertzearen ondoren izendatzen eta onartzen. Zozoak garela esaten ari zaizkigu, gure eremua kudeatzeko gauza ez garela, haiek kudeatuko dutela, gure partez. Zer lotsa guti, ez?

Karrikako jendeak konprenitzen du nekazariaren mundua?

Seguruenik ez. Gure ziurgabetasunean bizitzea ez da sartzen jendearen buruan. Eta, bertzalde, laneko erritmoaren kontua ere hor dago. Nekazaritzak bere erritmoa du, norberak azkartzen ahal du, baina landareak berea segituko du. Erritmo hori ere bizi behar da. Guk, gainera, epe luzeko proiektuaren aldeko apustua egin genuen, landaketak ere ez genituen urte berean egin denak, ahalmenik ere ez genuelako –ez lurrik, ez behar bertze diru–, eta horrek, nahitaez, are gehiago luzatu du guk proiektua aitzinat emateko jarritako epea. Nekazaritzaren erritmoa ez dator bat gaur egungo gizartearen abiadurarekin. ●

Udakoa, kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- **EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT**
- **BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT**
- **10 ZENBAKI URTEAN**

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.



Nazioaren neurrira



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Zorionekoak gara euskaldunok. Euskal Herria, Baskonia, gure nazioa, mundu osoaren aurrean agertzen da, historian izan den eta gaur egun den modukoa. *Imago Vasconiae*. Barne irudia eta besteen aurrekoa. Zer gara, nolakoak gara, non gaude, noiztik eta noiz arte. Gure kartografia historikoak gailurra lortu du eta nazioartean ere agertu da, Jose Mari Esparza eta Ramon Oleaga ikerlarien lan bikainari esker, Joseba Agirreazkuenaga eta Iñaki Lopez Luzuriagakoaren arartekotasuna medio. Atlasa da gure nortasun agiria orain.

Badugu irudia orain, eta badugu izena aspaldian. Gutxienez XVI. mendetik gara izenez *Euskal Herria*, gure literaturan horrela agertu gintuztelako orduan, bai Araban (Juan Perez Lazarraga), bai Lapurdin (Joanes Leizarraga). Baina, eta izana? Noiz izango gara nazio libre antolatua, instituzio, estatu, errepublika?

Politika atzeratuta dabil Euskal Herrian. Zer dela eta? Mende hartu gaituzte XVIII. mendetik Iparrean, eta XIX. mendetik, Hegoan. Zazpiak bat garela aldarri egin zuten XIX. mendean Abadiak eta Xahok, baina ondoren ez gara gai izan jauzi egiteko, eta erdizka hiruretan lotzen gaituzte gaur, zazpiak bat egiteko bide egokirik hartu gabe.

Ez dugu gaur politika burujaberik. Begira Euskal Autonomi Erkidegoa (EAE) deitu horretara eta ikusi alderdi abertzaleen artean dabilen lehia gordina. EAJk nahiago du PSOerek ezkondu

Euskaldunon kaltea ez dator hutsean eskuin muturretik, baina, Frantziatik bertatik dator, edo Espainiatik. Hori ikasten ez dugun bitartean ez dugu Euskal Herri librerik izango

eta haren harrokeria espainiar zalea gobernuan partekatu, EH Bildurekin akordio abertzalea adostu baino. Nafarroan, berriz, euskararen kaltetan gobernatzen du PSOEk, bi alderdi abertzaleen gobernatzeko *bonus* hori merke lortuta. Eta Iparraldean EH Baik ez du erreparorik ikusi Fronte Popular guztiz frantsesduanean txertatzeko, Frantzia bera eskuin muturraren besoetan ez uzteko argudiopean. Euskaldunon kaltea ez dator hutsean eskuin muturretik, baina, Frantziatik bertatik dator, edo Espainiatik. Hori ikasten ez dugun bitartean ez dugu Euskal Herri librerik izango.

Euskal politikagintzaren muina Euskal Herrian bertan kokatu behar dugu, ezinbestean. Bai bertoko erakunde autonomiko edo departamentukoetan, haie-

tan egoeraren diagnosi zehatzak egin, aliantza egokiak garatu eta ekinbide zuzenak bultzatu daitezkeelako. Bai eta herri elkarte, sindikatu, entpresa eta kultur erakundeetan ere, euskal nazioagintza benetako auzolan kolektibo bihurtzeko.

Auzolan politiko horren eremua argitu behar dugu, hala ere, hizkuntza irizpideetatik hasi eta kokapen politikotara helduta. Eskizofrenia punturaino eraman gaituzte herritarrak ordezkari politikoen azkenaldiko jokabideek. Ezin jarraituzkoa gertatu zen, esate baterako, Gasteizko Legebiltzarrean lehendakaria eta gobernu berria hautatzeko saio luzea. Hara non hasi zitzaizkigun bi hautagai nagusiak euskaratik gaztelerara jauzi egiten minutuero, etengabe, bakoitzaren ordu eta erdiko hitzartze luzean! Eromen linguistikoa, entsalada ozipindua. Noiz erabaki behar dugu Euskal Herriko hizkuntza euskara dela, eta ez dakienak, ikasten ez duen bitartean, eskuragarri dituela berehalako itzulpen zerbitzuak?

Elkarguneak identifikatzea eskatzen du, bere aldetik, Euskal Herria Bilduk, ondoren horietan elkarlana garatzeko moduan. Metodologia egokia izan daiteke, zalantzarik gabe, interes alderdikoekin talka egiten ez badu. Baina zehaztapena behar da, ezeren aurretik: Euskal Herriaren nazio aitortza. Gune historikoa, gune geografikoa, gune kulturala badena, behingoz, gune politiko nagusi bihurtu dadin. ●

Larrahe, eta elkarbizitza



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



DOM CAMPISTRON

Nire lagun M. paraje paregabeen bizi da. Nafarroako herri batean, Iruñerriatik gertu, jende bizizale anitzez betetakoan; bizi-bizia. Ez da herrian bertan bizi, talaiaren antza har dakioken muino moduko batean baizik, zeinetik, esan gabe doa, herria bera ez ezik mendi bista ederrak ere ikusi ahal baitituen, Gipuzkoako batzuenak ere tartean.

Garai batean apezaren etxea zelako, *Apezetxea* deitzen hasi zitzaion, are herriko seme Patxik M.-ri eskuz (eta maitasun handiz) izendapen hori daraman zurezko taila bat egin dion arte, bertan bizitzearen edo bertara gonbidatuak izatearen ohorea dugun lagunei ongiatorria egiten diguna, orduz geroztik.

Oso handia denez, beste jende batzuekin partekatzen ditu M.-k etxeko espazio batzuk, *Apezetxea*-ko komunitate txikia sortuz horrela, poliki, aski oharkabean. Bertako bizilagun izateko baldintza euskalduna izatea da, jakina, eta ez dakizue zein analisi soziologiko eta politikoa egin ahalko litzatekeen bizikide berriren baten bila jartzean M.-k eskakizun hori egiteak sortzen duen zalapartari buruz. Maskotarik ez edukitzea balitz galdegindakoa, edo lan finkoa edukitzea, edo ez erretzailea izatea, edo emakumezkoa izatea, edo nik ez dakit zer nolako pro-

fil zehatza balitz bilatutakoa, ez legoke arazorik, baina euskalduntasuna... ai, amigo.

Hizkuntza eskakizunek ez dituzte epaileak bakarrik asaldatzen. Gure herriaren baitan modu kamuflatu samarrean bizi diren munduko hiritar horien espainoltasunaren piztia nazionalista ere azkar esnatzen da horrelako egoeratan. *Diskriminatzailea* iruditzen zaie, arrazoiak galdetzen edo exijitzen dituzte, ez dutela ulertzen, eta diskurtsoak ematen hasten zaizkio batzuk, batez ere ikusten dutenean M.-k ez dituela justifikazioak ematen. Hala dela, eta kito.

Bestelako egoera batean naturala behar lukeen hizkuntzaren aldeko jarrerara horri zurruna deritzotela esatera ausartzen dira lotsagabeenak, eta aniztasuna eta irekitasunaren balioaz mintzatzen hasten zaizkio, elkarrekin bizitzen ikastearen balioaz, elkarbizitza benetakoa izateko espainolaren presentzia baimenduta egotearen eskakizuna inplizitua balitz bezala, elkarbizitza euskaraz ezinezkoa balitz bezala.

Iragan hilabetean, elizetxe horretan egin zuten Aranzadi elkartekoek Arriaundi mendian topatutako aldarearen aurkezpena, *Larra(he)* dibinitate baskoia eskainitakoarena. Aurkikun-

tzaren protagonista izan diren herritar harroekin batera –auzolanean egin baitituzte indusketa lanak–, bertan izan ziren ordezkari politikoak ere, herrikoak, bailarakoak, eta nola ez, baita Nafarroako gobernutzat hartua den erakunde horretakoak ere.

Bada, sasi-gobernu horren ordezkari anderea ez zen inola ere inbasio eta okupazioen patu zoritxarrekoetik askatu nahi duen gobernu baten izenean aritu, euskal harrotasunezko diskurtso bat eginez, aurkikuntza horren garrantziaren mailan legokeena, baizik eta mende-kotasuna erraietaraino txertatua duen konplexuz betetako euskaldunaren ahotik. Koloniala den erakunde baten ordezkari zari ongi dagokion moduan, bestalde, botere atzerritarrek beretzat errekuperatu duen indigena esaneko eta otzanduen gisan.

Izan ere, zer uste duzue azpimarratu zuela aldare horren aurkikuntzak erakuts dezakeenetik? Lur honen betidani-ko aniztasunaren lekukotza bat dela. Eta zeren aldarria egiteko uste duzue baliatu zuela une historikoa? Etorikizunari begira elkarbizitza hori elikatu beharra-rena. Harrapazan, harrapazak.

Horratx, *elkarbizitza* ulertzeko bi manera diferente. ●



**MIKEL BASABE
KORTABARRIA**
IRAKASLEA

Hezkuntza Sailean, euskara eskubide?

Ekain amaieran, Hezkuntza Sailak ehunka irakasle funtzionario izendatu ditu: praktikaldia egitea falta dute, bai eta, irailetik aurrera, mediku-azterketa ere.

Azkeneko deialdian, mediku-azterketa azpikontratatu egin zuen Hezkuntza Sailak. Azpikontratatu zuenean, "txikikeriatxo" bat ahaztu zitzaion: euskaldunon hizkuntza-eskubideak errespetatuko zirela ziurtatzea. Nik, Steilas sindikatuaren babesarekin, uko egin nion mediku-azterketa gaztelaniaz egiteari eta, hiru bider planto egin ostean, azkenean Hezkuntza Sailak hanka-sartzea onartu eta mediku euskalduna jarri zuen: Bilbotik ekarri behar izan zuten, Gasteizen, nonbait, Hezkuntza Sailak ez daukalako mediku euskaldunik: ez zuzenean kontratataturik, ezta azpikontrataturik ere.

Udaberri honetan konpondutako auzi horretatik hainbat ondorio atera behar direla iruditzen zait.

Lehenengoa, Hezkuntza Sailak ziurtatu beharra dauka berarekin egin beharreko izapide guztiak euskaraz egin ahal izango direla. Berdin dio ahoz zein idatziz, berdin dio arreta zuzenekoan zein azpikontratutakoan. Aukera paregabea dauka plantillako mediku euskaldunak kontratatze-ko eta, azpikontratatu behar izango balu, baldintza-pleguan hizkuntza-klausulak

sartzeko. Hau da, aukera ederra dauka iazko hanka-sartzea ez errepikatzeke.

Bigarrena euskalgintzak atera behar-ko luke. Iaz inork garrantzirik eman ez bazion ere, printzipio kontua da Eusko Jaurlaritzari euskaldunon hizkuntza-eskubideak errespetatzea ditzala exijitzea. Askoz hobe, gainera, urraketa salatu beharrean, eskubidea gauzagarria izan-go dela ziurtatzea. Hilabete bi pasa geratzen dira mediku-azterketak egiten hasteko; hasi lanean Hezkuntza Sailak oraingoan berma dezan duela sei hilabete bermatu ez zuena: hizkuntza ofiziala aukeratzeko eskubidea.

Hirugarrena, funtzionario izendatu berri dituzten irakasle euskaltzaleek: gure eskubideak geuk defendatzen ez baditugu, nork? Planto eginez ez bada, zelan? Ondo dago euskarari egiten zaizkion erasoen kontrako manifestazioetara joatea, baina askoz eraginkorragoa da herritar garelako dagozkigun hizkuntza-eskubideak irmotasunez defendatzea.

Izan ere, administrazioak –edozein administrazioak– hizkuntza-eskubideak ukatzen dizkigun bakoitzean euskaldunok salaketa idatzia egingo bagenu, euskara gutxiesten duten epaileek errazago ulertuko lukete geurea, gure kórner honetan, hizkuntza ofiziala dela. Ofiziala, ez koofiziala. ●

Mugak Zabalduz



ARANTZA GUTIÉRREZ
EHU-KO IRAKASLEA

Aurten ere, Mugak Zabalduz karabanen ia ehun lagun abiatuko gara Euskal Herritik, Europaren migrazio politikak, eta aurten bereziki onartu berri duen Migrazio eta Asiloko Paktua, salatzeko asmoz. Aurten Balkanetako mugara joango gara, Bosnia Herzegovinako Bihac hirira; hor pertsona musulmanen aurkako genozidioa gertatu zen 1990eko hamarkadan eta, gaur, babes bila datozen pertsonen iragazte-puntua da. Paddan eta Triesten (Italia) ere egitarau zabal antolatu dute *Carovane Migranti*-ko lagunek, bertako aktibisten lana ezagutu eta memoriatik ikas dezagun, aliantzak sortzen ditugun aldi berean.

Uztailaren 12an aterako gara eta hamar egunez aldarrikatuko dugu eskuin-muturrak marraztu nahi duen Europa ez dela gurea. Palestinan gertatzen ari den genozidioa salatu, eta pertsona guztientzat eskubide guztiak eta ibilbide seguruak exijituko ditugu. Gurea asmo oneko pertsonen ahalegin hutsala dela pentsatuko dute batzuek, ezer gutxi egin baitezakegu hedatzen ari den xenofobiaren marmuaren aurka. Baliteke; baina benetan sinesten dut Galeanok zioen honetan: "Jende txiki askok, leku txiki askotan, gauza txikiak eginez, mundua alda dezake". ●

Sinetsi



**KARMELE GISASOLA
ZENIKAZELAIA**
HERRI KIROLARIA

Pertsonok ze erraz epaitzen dugun aldamenekoa (edo aldamenekoa ez dena). Norberarenak izan ezik, gainontzeko guztiak ematen du erraza. Berehala bilatzen diogu irtenbidea besteenari. Eta ze zaila den norberak barruan duena kudeatzea. Askotan, pertsona konkretu batzuk idealizatzen ditugu, dena ondo joango balitzaie bezala. Eta ze gutxi dakigun irudiaz gain barruan dutenaz.

Niri txikitan inbidia ematen zidaten neska kirolariek. Idealizatuta nituen. Uste nuen kirolaria izateko estereotipo jakin bat jarraitu behar zela: sano jatea (txokolaterik ez), pisu askorik ez izatea eta ile ederrarekin mototsa egin eta korrika ondo egitea. Ni kanon horretatik at nongoen. Ez nuen ile ederrik, pisu asko nuen eta korrika egiten traketsa nintzen. Imajinatu zelako traketsa nintzen, Lehen Hezkuntzan, heziketa fisikoa egiterakoan hesiak saltatu beharrean bota egiten nituela. Ez nuen oso gustuko eskolan erakusten ziguten heziketa fisikoa. Egiten ziren jolas gehientsuenak korrika egitearekin lotuta zeuden eta ni ez nintzen ondo moldatzen horretan.

Txikitan inbidia ematen zidaten neska kirolariek. Idealizatuta nituen. Uste nuen kirolaria izateko estereotipo jakin bat jarraitu behar zela: sano jatea, pisu askorik ez izatea...

Erresistentziarekin lotutako joko asko erakusten zizkiguten eta indarra lantzeko bat bera ere ez.

Sentitzen nuen ez nuela balio erakusten zigutena egiteko, eta buruan sartu zitzaidan nik ezin nuela kirolaria izan. Baina niri bakarrik ez, nire inguruak eta batez ere familiak gauza bera pentsa-

tzen zuten. Baldar xamarra nintzelako, agian, baita behar nukeena baino pisu gehiago nuelako ere. Baina biziak mila buelta ematen ditu, eta sinetsi, gaur egun, kirola egin gabeko egun gutxi izaten ditudala.

Hainbat gauza ikasi ditut. Lehenengo, mila kirol mota daudela eta gustukoa bilatzean dagoela gakoa. Lotsa alde batera utzi behar dela (nahiz eta lehenaldietan tripak beti dantzan izan). Denok ditugu lehenengo aldiak eta hemen inor ez da jaino ikasita. Ikasi dut ez dela idealizatu behar. Hemen guztiok ditugula geure arazoak, bakoitzak bereak eta laguntza eskatzea (zaila dirudien arren) ezinbestekoa dela. Ikasi dut kirolaria izan naitekeela eta estereotipo guztiak apurto daitezkeela. Eta ez dela ile ederrik eduki behar korrika egiteko.

Teoriak erraza dirudien arren, ze zaila den praktika. Horregatik, harri jatzeko Euskal Herriko lau txapel izan arren, kosta egiten zait kirolaria naizela esatea. Baina txikitako Karmeleri erakutsi diot, txikitan ez sinetsi arren, bere buruari proposatzen dizkion hainbat gauzatarako dela gai. ●

Basherrri
SAREA
GIZKONKO KONTSUMO TRULDE ETA KOOPERATIBAK

Elika gaitezen irizpideak kontuan hartuta eta **amalurra zainduz**

655709043 | info@basherrisarea.eus

OROIMEN HISTERIKOA

Nagore Irazustabarrenaren podcasta

*Historia diren istorioek txoratzten
gaituztenontzako saioa*



Asteartero
ARGIAN eta
audio plataforma
guztietan

 ARGIA.eus/podcast

EHZ  festibala

Hazi berri bat erein da Arberatze-Zilhekoan

 GORKA PEÑAGARIKANO  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA



Kasu! *Achtung!* “Mezua pasa. EHZra arribatzean alimaleko flika kontrola xakurrekin!”. Kasuen... Amikuzen ere ezin bakean utzi, komentatu du kontrola pasa eta gutxira autoa aparkatu nahian dabilen *festibaler*o batek. Gerora ikusi du Telegramenez lepo zabaldu den aurreko mezu hori. Jasoa zuen jakinarazpena, baina mugikorrari erreparatu ez. Gertatzen dira halakoak. Lehenago ikusiko balu, sustoa eta herstura, sikiera, asumitu ahalko zituen aurretik. EHZko laguntzaileak hor zebiltzan hala ere, Arberatz-Zilhekoako ohiko sarreran, Googlen mapek ere bidaltzen duten bidegurutze horretan, beste aldetik sartzeko esaten.

Mezu jarria goizean hasi da, ordea. Egia esan, egoeraren idiosinkrasiak berak eta astebururako aurreikusitako akontezimenduek ez dute harridurarako tarte handirik uzten. Igandean hau,

teskunde legegileak egin dira Frantzian, eta ostiral goizez komunikatua atera du EHZko antolakuntzak, eskuin muturra borrokatzeko dei eginez kulturgintzatik eta euskaratik, harremanak sendotuz eta indartuz, elkarrekin. Festibaleko *Ti-tau!* egunkari satirikoak ostiralez dioen moduan: “Bardella, Bordela, ala biak? Armairu zolan uztea hobe denak”.

Horrez gain, ekainaren 28a festibalaren estreinako eguna izaki, makina bat keinu egon dira Harrotasunaren Eguna-ri, sarrerako bandera kasurako. Baina detaile diruditen bereizgarriok ez dira hor amaitzen: oholtza nagusiko lona Palestinako bandera ikaragarri handi bat da, eta plazako eszenan bada beste lona bat *kantatu, maitatu eta dantzatu* dionena. Bistan da, festibalak politikoak dira. Festibal oro da politiko, baita garagardo markak promozionatzen dituztenak ere. Muturrekoa behar du izan, orain,

BBK Livera joan eta Vueling eta Idealista enpresa espekulatuzaileek haien promozio guneak dituztela ikusteak. Horrelako espekulatuzaileek ez dute tokirik EHZn, eta markek, promozioek, ez dute lekurik ezta ere, salbu eta aparkalekuko eta akanpalekuko zintak. Horregatik joaten gara EHZra. Eta horregatik itzultzen da jendea, balio horietan sinesten duelako.

EGOKITZAPEN LANAK

Aurtengo berrikuntzetako bat izan da Arberatz-Zilhekoan egin dela estreinako festibala, bost urte Irisarrin eman ondoren. Beraz, esperotako moduan, lur-hartzea kostatu zaie festibal zaleei. EHZ zale hegoaldetar fetitxistentzat, gainera, urrunago zegoen gune berria eta nabaritu da hori, jendea ohi baino beranduxeago heldu delako. Bazterrak eta trikimailuak ezagutu behar dira etxe berri orotan.







Autoak ahal bezala aparkatu, instalatzeko gunea atzeman, oihaletxea ahalik eta hobekien muntatu eta orduan hasten da onena, behin gauza guztiak egin da daukazula, garagardo lata freskoa zabaltzean. Irekitze une hori berotzen, plazan, Broken Brothers Brass Band txaranga gozo iruindarra. Kosta da plaza betetzea, jendeari kosta zaio heltzea, baina konturatzerako, 20:30ak bueltan Janus Lester kontzertu-gunean ari denarako, sumatu da berotasuna. Haize fin eta freskoa tapatzeko adina jende. Euriak egiten du mehatxu noizbehinka, baina eutsiko diola dirudi. Gaurkoz bai, bederen. Biharko aurreikuspenak zeharo txarrak dira, bereziki goiz partera begirakoak; baina hori bihar etorriko da, eta EHZ zerbait bada, unean bertan sentitutakoa azalertzeko da.

Kartel dotorea du ostiralak, eta espetotako moduan joan da: fuerte. Lehen

lgande gauean, Frantziako hauteskunde legegileak zirela eta, antolatzaileek sua piztu zuten eskuin muturraren aurka antolatu behar dela aldarrikatzeko

eguna izate hutsagatik, fuerte irteteko motiboak asko dira, bereziki musika eskaintzak laguntzen badu. Heinean horrela izan da, nahiz espektakulu bakar batek ere ez duen erabat birrindu. Pelax eta Bananas donostiarrek kon-

tzertu aski dotore eta indartsua eskaini dute eszenario txikian, baina horrelako taldeei falta zaie *punch* bat: jende bereziki askok ezagutzen ez bazaitu, eskaintzen duzun kontzertua hain ona izanda ere, ez duzu sekula lehertuko. Zaletuontzat, hori bai, luxuzko bi emanaldi. Gertu mugiarazi ditu Pelaxek eta gerritik gorako dena Bananasek, lepoak-eta gogortzeraino. Hiru oron laurden edukita, formulan asmatu dute biek: kantu arteetan gutxi hitz egin, oholta gainean dena eman eta indarra transmititu horixe bera eskatzen ari den zaletuari. Benizzek ere, bere estiloan, ordu txikiagotan eta musika elektronikoaren laguntzaz, bete-betean asmatu du formatuarekin. Eskala txikian ondo-asko lehertu duten hiru espektakulu, alajaina.

Aurrez aipatu bezala, kontzertu handi-handirik ez da egon ostiralean. Belakozen kartel burua, eta kartel buru rola

jokatu du, 23:30ean kontzertuari ekin da, baina handi geratu zaio oholtza. Eta sentsazioz, oro har, talde horri handi geratu ohi zaio festibalean kategoria handian jokatzeko. Festibaletan jotzeko musika egiten dute, eta oso onak dira, baina gehiago luzitzen dute areto txikiagoetan, azken boladan egin duten areto txikien biran ikusi den moduan. Bada zerbait hor ulertzen zaila dena. Kantu hautaketa izan daiteke akaso, ezagunenak ez baitzituzten jo, erabaki propioz segur; baina bada zerbait hor ulertzen zaila dela, zergatik ez duen jendearekin konektatzen asmatzen oholtza nagusian denean.

BAKOITZA BERERA

Ostiral poz, larunbat triste. Egunak oso goibel esnatu du Arberatze-Zilhekoan, akaso horrexegatik, gauak luzatu zuelako. Poz dosi faltsua jaso du, baina, goizean goiz mugikorrek eguraldi iragarpenak ikusi dituenak, prebisioek argiki hitzematzen baitute 10:00etatik aurrera atertu eta egun osoan tregua emango duela. Eta, kasualki, 10:00ak pasatxoan atertu eta ostarreak zabalitzen hasi dira. Gutxirako irau du zorionak. Euri langarrak aterrun batzuk eman ditu egunean, baina kontrolik gabe aritu da botatzen. Horrek markatu du jendearen aldartea.

Festival batean eguraldia horrelakoxea denean, eta bezperan behar baino gehiago luzatu zarenean, zail da topatzen txupinak botatzeko moduko

adina aldarerik. Petralkeria areagotu egin ohi da, gainera, zurekin etorri ez den baina ezagun duzun pertsona horrek, aurpegia botata, kafea, gatza, makarroiak eta zortzi zerbeza lata eskatzen dizkizunean. Aurreko urtean baino gutxiago eskatu dizu, momentuz, baina badakizu muturra okertu gabe ematen badiozu, ezer leporatzen ez badiozu, bihar goizean ere hemen topatuko duzula, beste gauza batzuk eskatzen. *Kanpineoa*-ren eta laguntasun faltsu baina interesatuen balantza izugarri interesgarria da sozialki aztertzeko, klaseak eta klaseak baitaude, gainera, festibaleroen artean. Batzuk erosketarik-eta egin gabe etorri dira, kanpinarekin eta aldatzeko bi arroparekin, eta bestetuek urtebete pasatu dute furgoneta mimo handiz mila trastu erabilgarriekin egokitzen. Baina lehenbizikoak aurpegi galanta du, eta bigarrenak ez daki ezetz esaten. Soziologok, nahi duzuen doinu eta neurrian, bota bertsoa.

Gai hori jartzeko modukoa zen zapatu goizeko bertso musikatueta. Ordu-bete pasatu dute euritik justuki babes-tuta, kantuan, talo eta kafe artean. Ez da bereziki giro, eta pena da hori, eguneko giroa ederra delako EHZN. Anarrik jarri behar izan du gindatxo, egunak daraman aldartea iraultzeko. Bi *V, Vesna Vulovic*, eta jendea salto betean. Sorpresarik ez du ematen azkoitiarrak: solemneak eta emotiboak ohi dira bere kontzertuak.

Aurten sorpresarik eman duen talderik bada, hori RTZ kolektiboan izan da. Larunbat iluntze partera *show* galanta eman dute rapero lapurtar gazteek, lagun askoren aurrean, eta harri eta zur utzi gaitu asko eta asko. Hegoaldetar gaixoak? Bai. Gerora egon gara tristeki komentatzen talde honek inoiz gutxitan gurutzatuko duela Bidasoa ibaia, salbuespen konkreturen bat kenduta bederen, badirelako bi arrazoi hori ez gertatzeko: Iparraldekoak izatea, lehen; eta rapean aritzea, bigarrena. Odei Barrosok *Terapia* diskoarekin gutxi bidaiatu badu... Espero, hala ere, horrela ez izatea.

Giroak baretzera egin du gero, baina. Eta ez, propio, musikariek asmatu ez dutelako. Ekitaldi politikoaren ostean, 22:00etan, Gorka Urbizuk hartu du oholtza nagusia, eta 1) ez zara giroan sartu eta logalea eragin dizu, edo 2) malkorik isuri duzu. Musika ederra egiten du Urbizuk, artista handia da, eta ez musikan bakarrik, fenomeno bat bihurtu baita merch-aren munduaren ere; baina melankolia hori ez da larunbat batez 22:00etan entzutekoa musika festival batean. Joan areto batera, hartu kopa bat eta ikusi nahi baduzu.

Eskerrak Su Ta Gar etorri den giroa berotzera. Laster 40 urte oholtza gainean, eta ez dute indarrrik galtzen. Publikoarekin nahi dutena egiten jarraitzen dute. Orain salto, marru, berrakada, eta giroa baretu. Artista hutsak. Ezbairik gabe, gauerdia izanik, festi-



EHZN egon denak ziur ikusi duela ARGIAko karpa gorria. Larunbat eguerdian, Zikiroko karpa atarian, E-H-Z egurrezko letren atzean grabatu genuen BTN saio berezia, Kanaldude telebistarekin elkarlean.

Oihana Arana, Haizea Arana eta Aner Euzkitzeren gidaritzan, luxuzko bi gonbidatu izan ziren gurean. Lehenbiziko oren erdian, Kattina Haran EHZNko antolatzailea. Festivalaren filosofiaz, antolakuntzaz, ibilbideaz eta taldean darabiltzaten gogoetei buruz hitz egin genuen be-

rarekin; hain justu, bere da festivalaren sortzaileetatik.

Ondoren, arratsaldean kontzertua eskaini behar zuen musikari ezagun bat etorri zen platora: Anari. Festival hitz egin genuen harekin; EHZN jotzeaz baina baita makrofestibalei buruz ere. *Sold out* kulturaz mintzatu zen, musikaren zentralitateaz edo zentralitate ezaz, festibalek sustatzen duten giroaz, harremantze ereduaz...

Uztailaren 2an, 20:00etatik aurrera, ARGIAN eta Kanalduden ikusgai. ●



balak premiazko zuen salto galanta. Nakarrek eutsi dio gero erronkari, eszenario txikian, eibartarrek bukatu eta berehala. Haien lana egiten asmatu dute, horixe baita eskaintzeko daukatena: 45 minutuz jendea saltoka ipini eta egurra eman. Hor amaitu da gauaren goraldia; handik aurrera behera egin du nabarmen. Sünek ez du ezer berezirik eskaini. Ez da hain zaila goizaldeko 1:30ean jendea dantzan ipintzea, eta lortu du, base dantzagarria ipinita, baina Huntzaren amaieraren fenomeno beregain hartua du, Gaztea irratiak, EiTbK eta enparauk sekulako bonboa eman diote, eta berari buruz esaten zenaren erdira ere ez da heldu. Esperantzarik zuenak, atseka-bea bueltan.

EA NORK EUSTEN DION NEKEARI

Beno, zerbait, zerbait... Musikalki giroa apaldu bazen ere, zerbait luzatu dute batzuek larunbat gauean. Eta asmatzen erraza da nortzuk aritu diren luzamenduetan: lokatzak sa-

latzen du. Larunbatean bota duen guztiarekin, lokatzez zikindu samar ginen guztiok –eskerrak Iparraldeko laborariei, hainbat tona lasto ekartzan dituztelako lohia lehertzeko–, baina nor lotaratu eta dutxaratu den eta nor ez, ageri-agerian geratu da igande goizean Arberatzeko plazan.

Baina ez dira atzean geratu. Alkoholarekin aurrera segitu ahal izan dute barra alboan bazelako giroa, oholtzatik urrun, haur orkestra bat ari baitzen emanaldia eskaintzen.

Ederki asko pasatu dute hurrek EHZko igandean. Giro ederra zeukaten Haurren Txokoan, animatzaile batekin, eta aurpegian ikurrinak margotu dituzte zenbaitzuk. Ez dut imajinatzen Gipuzkoako herri eskaldun batean, 6 urteko haurrak, era masiboan, ikurrinak aurpegian margotzen ikustea. EHZk sustatzen duenaren adierazle argia da hori: euskara, euskal kultura, nazio ikuspegia... eta denentzako lekua dagoela, baldin eta balio batzuen baitan jarduteko bada. Hori guztia ere bada EHZ. ●



Koop
mitxelena
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen
mekanizazioan espezialistak



Ezlaigo industrialdea 21, HERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.eus

www.talleresmitxelena.eus

Zezenketen kontrako estrategiak

Zezenketarik gabeko besten inguruan mintzatu dira zenbait eragile, Zaunk! Iruñerria antiespezista eragileak Iruñeko Laban antolaturiko *Zezenketen bidegurutzeak* solasaldian. Alternatibak indartzearen garrantziaz, peñen erantzukizunaz eta legeak dituen mugez mintzatu dira, besteak beste.

 OLAIA L. GARAIALDE  AITOR GARMENDIA

Zuri-gorritz jantzi dira Iruñeko karrikak Sanferminen atarian. Dagoeneko entzierroaren he-
siak prest dira, eta egunez egun, korrika egitera behartu eta plazan hilko dituzten zezenak Iruñeko Gaseko ukuiluetan daude. Aurreko hilabeteetan zein Sanferminetan ohikoak izaten dira zezenketen kontrako aldarrikapenak, hala nola manifestazioak, prentsaurrekoak, hitzaldiak eta pankartak. Zaunk! Iruñerria antiespezista taldeak, maiatzean, Laban egindako solasaldia horien adibide bat gehiago da. Taldeko Idoia Azkonak, Herri Sanferminak plataformako Aika Martinikorenak, Iruñea Antitaurina taldeko Iban Agerrik eta Bartzelonako UPF-Centre For Animal Ethics zentroko Olatz Aranzeta-Reboredo ikerlariak zezenketarik gabeko bestak aldarrikatu dituzte.

Iruñerriko hainbat kolektiboren artean 2016. urtean sorturiko plataformak da Herri Sanferminak, eta helburu nagusia besta eredia aldatzea da. Jai herrikoiak, ekologikoak, antikapitalistak, anitzak, kulturalak, feministak, parte-hartzaileak eta euskaldunak direla aldarrikatzen dute. Balore horien artean antitaurino hitza agertzen ez den arren, Martinikorenak azaldu du plataformaren “jarrera naturala” zezenketen

Zezenketei amaiera emateko estrategietan, hiru ardatz nagusi nabarmendu ditu Idoia Azkonak: lurraldetasuna, “indiferenteak” edo “parrandazaleak”, eta Iruñerriko “klima militantea”

kontra egotea dela: “Gure jai ereduaren ez dute lekuri inongo tratatu txarrik ez esplotaziorik”.

Urte berean, zezenketekin amaitzeko asmoz sortu zen Iruñea Antitaurina. “Ezin dugu plazan gertatzen den bortizkeria ahaztu eta beste leku batera begiratu”, esan du Agerrik. Ordutik, bi xede ezarri dituzte: epe laburrean Iruñerriko herritarrak informatzea eta sentsibilizatzea, eta epe ertain edo luzera, zezenketak amaitzea: “Beste lekuetan gertatu bada, hemen zergatik ez?”.

Bide beretik doa Zaunk! eragilea, eta urrats bat gehiago egiten du gizakiz besteko animalien eskubideen alde. Azkonak nabarmendu du xede nagusia antiespezismoa gizarteratzea eta zabal-tzea dela: “Gizakiz besteko animalien askapena lortu nahi dugu”. Zezenketen kontra egoteko bi arrazoi nagusi azpimarratu ditu. Alde batetik, jai ereduari buelta bat eman behar zaiola uste du, eta zapalkuntzarik gabeko jai ereduaren alde borrokatu. Horrez gain, nabarmendu du gizakiz besteko animaliak ez direla jaiogizakien nahi eta beharrak asetzeko: “Ez genituzke erabili behar ez elikatzen, ez janzteko, ez esperimendatzeko... hau da, gure apetak asetzeko”. Gaineratu du, animalia bakoitzak, norbere erara, erresistentzia adierazten duela: “Gizakiz besteko animaliek bizirik mantentzeko interesa daukate, eta min egiten dieten egoeretatik eta sufrimendutik ihes egiteko nahia dute”.

Bat egin du horrekin UPF-Centre For Animal Ethics zentroko Aranzetak. Zentroa 2015. urtean sortu zen, akademian, politikan, iritzi publikoan eta hedabideetan ikuspegi ez espezistak sustatzeko asmoz. Ikerlariak gaineratu du gizakiz besteko animaliek “kontsiderazio morala” dutela: “Praktika hauen guztien kontra gaude, sufrimenduare-





kin ikuskizuna egiten dutelako eta diru publikoaren erabilera immoralak egiten dutelako". Gaineratu du jende askok ez dituela ezagutzen zezenketen atzean dauden interes ekonomikoak. Zenbait datu eman ditu: zezenketen diru sarrearen %75 nekazaritza plan bateraturako dirulaguntzetatik dator; ustiategi bakoitzak 600.000 euro baino gehiago gastatzen ditu urtero, eta horren erdia diru publikoa da; eta 600 ustiategietatik soilik lau dira ekonomikoki errentagarriak. "Diru horrekin beste gauza batzuk egin daitezke; jendeak jakingo balu zezenketen kontra eginen luke", esan du.

PEÑAK, ALDAKETARAKO ERAGILE

Zezenketen kontra egotea ez da aski zezenketak amaitzeko. Horregatik, horie amaiara emateko estrategiaz mintzatu dira. Hiru ardatz nagusi nabarmendu ditu Azkonak: lurraldetasuna, "indiferenteak" edo "parrandazaleak", eta Iruñerriko "klima militantea". Lurraldetasunari dagokionez, Azkonak argi dauka tokian toki sortutako diskurtsoek, kanpotik etorritako kritikek baino in-

paktu handiagoa dutela: "Iruñeko jendea Iruñetik eta hemengo errealitatea ulertuz eta ñabardunak kontuan hartuz mugitzen hasi denean, orduan hasi da benetan mugitzen". Iruñea Antitaurina taldearen aldarri nagusia da Iruñea ez dela zezenketa zalea, Sanfermin zalea baizik. Azkonaren arabera, diskurtso hori estrategikoa izan daiteke.

Parranda grina kontuan hartzeko faktorea da, bere esanetan: "Zezenari begiraten ez dioten, eta soilik parranda egitera, mozkortzera eta txarangen giroaz gozatzera joaten direnei erreparatu behar diegu. Azkenean, parranda bada nahi dutena, alternatibaren bidez plazak hustea lortu dezakegu".

Bat egin dute denek alternatibetan indarra jartzearen garrantziarekin. Herri Sanferminak plataformak, esate baterako, egunero arrats antitaurinoak antolatzen ditu zezenketen orduan; hala nola dantzaldiak, kontzertuak eta beste. Egitarau horren barruan, urtero, uztailearen 7an, 19:00etan, Iruñea Antitaurina eragileak antolaturiko manifestazioa egiten dute 3indarrok elektrotzarangaren

erritmoaz girotuta. Horrez gain, badira alternatibak eskaintzen dituzten beste espazio batzuk ere; hala nola Laba eta Matalaz. "Sanferminak geroz eta kapitalistagoak bihurtzen ari dira; horregatik, garrantzitsua da horrelako espazioak babestea", esan du Azkonak.

Alternatibak eskaintzeaz gain, peñen jarrera aldatzeak eragin "handia" lukeela uste du Martinikorenak: "Peñek betetzen dute plaza. Iruñea berez ez da zezenketa zalea, giroagatik joaten dira". Halere, uste du peñetan zenbait aldaketa egiten ari direla, nahiz eta "txikiak" izan. Bide beretik jo du Azkonak: "Peñak plazatik irteten direnean agian ikusiko dugu benetan amaiera".

Legeditik heldu dio parrandazaleen auziari Aranzetak, eta azaldu du zezen plazara sartzeko gutxieneko adina 18 urtera igotzea eta alkoholaren kontsumoa debekatzea neurri eraginkorrak izan daitezkeela: "Nerabeak babesteko neurri bat izateaz gain, parrandazale askok zalantza jarriko dute zertarako joan, ezin izango dutelako parranda bota". Balear Uharteetan martxan jarri zituz-

ten neurri batzuk dira, baina VOX eta PP alderdiek berriz ere jaitsi dute gutxieneko adina.

LOBBYAK ETA ENTRETENIMENDUA

Animalien erabilera defendatzen duten lobbyak aztertzen ditu Aranzetak, tartean, zezenketen aldeko zenbait talde koordinatutako politikarien eta instituzio politikoen erabakietan eragiteko hartzen ari diren bideak: "Animalismoari erantzuten dioten talde asko sortu dira, eta oso gauza konkretuak egiten ari dira; adibidez, gezurrak zabaltzeko ikerketak eta tesiak finantzatzen ari dira". Horrekin batera, salatu du Hego Euskal Herrian legez baliatzen ari direla udalei eskualdeko eskumenak kentzeko. Espainiako azaroaren 12ko 18/2013 Legearen arabera, zezenketak ondare kulturala dira; hortaz, zezenketen kontra daudela dioten udalek ondorio ekonomiko eta legal "larriak" izan ditzakete antikonstituzionaltzat hartu daitekeelako kontra egitea: "Zezenketen aldeko kolektiboek zezenketen kontra dauden udalak salatu dituzte, eta horren ondorioz egoera ekonomiko larrian geratu dira batzuk".

Egoerari horri aurre egiteko, *Hau ez da nire kultura* lelopean 500 sinadura bildu nahi dituzte legea indargabetzeko. Uztailaren 5ean, hiriburuan bi ekitaldi antolatuta dituzte sinadurak biltzeko, goizez eta arratsaldean. Agerrik eta Aranzetak legea indargabetzearen alde sinatzeak duen garrantzia azpimarratu dute.

BORROKA ZABALTZEKO BEHARRA

Iruñerriak duen potentzial militantea kontuan hartzea estrategikoa izan daiteke, Azkonaren ustez. Garrantzitsua da eragileen arteko aliantzak sortzea. Hala nola Herri Sanferminak plataformaren bidez edota Zezenketarik ez! sarearekin. Sarea 2022an sortu zen, modu asanblearioan, zezenketen kontra mobilizatzeko, eta sarearen parte dira Zaunk! eta Iruñea Antitaurina. Sorrera urtean, zezenketen kontrako 50 atxikimendu baino gehiago jaso zituzten, Iruñerriko musikariak, gizarte eragileak eta tabernariak tarteko. Iruñerriko Bilgune Feminista, Txirringudariak, E28J plataforma, Haritu Elkarlaguntza Sarea, Matalaz, Katu, Oberena dantza taldea, Aurora Beltran, Maruxak, Tatxers, Saioa Alkaiza, Reymy eta beste askok sinatu zuten.

Aliantzak indartzeko, zezenketen auzia ikuspegi zabaletik landu behar dela uste du Azkonak: "Zer gertatzen da pla-



"Zezenketen bidegurutzeak" solasaldian, ezkeretik eskuinera: Iban Arregi, Idoia Azkona, Aika Martinikorena, Olatz Aranzeta-Reboredo eta Itsaso Jauregi moderatzailea.

"Peñek betetzen dute plaza. Iruñea berez ez da zezenketa zalea, giroagatik joaten dira"

Aika Martinikorena

zan? Zein droga daude? Nork kontsumitzen ditu? Nola? Zein harreman eta jarrerara mota daude? Eredutxo matxistagoak daude barruan? Zer-nolako kultura ari gara betikotzen?".

Beste borroketan ere arreta jartzea lagungarria dela dio, hala nola mugimendu feministan eta kuir mugimenduan. Izan ere, "eraso kontzeptuaren" definizioa zabaltzea lortu dute: "Lehen normaltzat hartzen genituen jarrera batzuk gaur egun erasotzat hartzen ditu gizartearen gehiengoak eta lortu dute hainbat protokolo martxan jartzea eta jaiak bertan behera uztea erasoengatik".

Aranzetak gaineratu du Espainiako Haur eta Nerabeen Legea ere inspirazio

iturri izan daitekeela, eta "gizartearen pasibotasunaren" aurrean informazioa eta alternatiba herrikoiak ematea beharrezkoa dela: "Lobbyetatik esaten dute animalismoa ezereza dela: kultur eza, existentzia eza, gozamen eza. Horren aurrean, solasaldi honetan parte hartu duzuen eragileen existentziak sekulako pisua dauka, demostratzen duzelako jendeak horrelako alternatibak bizitzen eta gozatzen dituela".

ENTZIERROAREKIN ZER?

Entzierroaz gutxi hitz egin badute ere, eztabaida piztu du gaiak. Iruñea Antitaurina izan da entzierroaz zuzenean mintzatu den bakarra. Taldeko ordezkariak nabarmendu du hasieran taldean entzierroaren inguruan eztabaidatu bazuten ere, soilik plazara mugatzen direla estrategikoagoa delako eta entzierroaren kontra lerratzea oztopo izan daitekeelako: "Beti esaten dugu entzierroek beren erritmoa dutela, eta ezin dugula isilarazi plazan gertatzen dena".

Ikus-entzule batek galdetu du zezenketak eta entzierroa bi borroka desberdin izango balira bezala lantzeak ez ote dion zilegitasuna kentzen borrokarik. Argi erantzun du Iruñea Antitaurinak: estrategia da zezenketetara mugatzea. Eztabaidak jarraitu du, eta entzierroa landu edo ez landu, korapilo horretan itxi dute mahai-ingurua. ●

Maite Azpiazu, Oinherriko kidea

“Haurren parte-hartzeak ezin du izan eserita eta hitzaren bidez bakarrik”



Zein egitura behar ditugu herrian, hurrek herriko erabakietan parte har dezaten edota beharren bat badute bideratzen jakin dezaten? Galderari tiraka esperientzia pilotua egin dute lau herritan eta emaitza ezberdina izan da lauretan. Prozesua gidatu duen Oinherri Herri Hezitzaileen Sareko kidea Maite Azpiazu Errazkinek eman dizkigu azalpenak.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  IBAI ARRIETA / ARGIA CC-BY-SA

Haur eta gazteei galdetu zer nahi duten eta zerrendarekin udalera edo dena delakora joan. Horrela ulertzen al dugu maiz parte-hartzea? Hori baino konplexuagoa ez al da?

Bai, asko sinplifikatu dugu parte-hartzearen kontzeptua, eta haurren kasura eramaten dugunean are agerikoagoa da. Hurrek zerbaitetan parte hartzea da, oro har, helduok prestatu dugun ekintza bat hurrek kontsumitzea. Hortik harago joateko gogoia egon den kasuetan, iritsi gara haurren iritzia edota nahia entzuteran, “zer nahi duzu?” galderarekin, baina jakina, horrela galdetuta, Olentzerori idatzitako gutuna atera ohi zaigu. Niri ere galdetuko balidate zer nahi dudan, beste lanketarik gabe, auskalo zer botako nukeen. Gero zerrenda udalera iristen da, udalak erabakitzen du zeri bai eta zeri ez heldu, eta martxan jartzen dute. Nahiko eredu asistentziala

da: hitza ematen diegu, baina gero nahi duguna egiten bukatzen dugu. Egin ohi dugunari parte-hartze soziala deitzen zaio: haurrak informatu eta haien hitza entzun, eta ia-ia beti haurren gaien inguruan galdetzen diegu, eskolako patioen eta parkeen inguruan, helduen moduak jarraituta, alegia helduok parte hartzen dakigun moduetan, bilera edo asanblada formatuan, jesarrira eta hitza hartuta.

Pilotajearen ariketa sinple bat egin dugu: bakoitzak kontaktu du bere lehen oroitzapen parte-hartzailea, zerekin lotzen duen parte-hartze hori, eta atera dira partaide izatearen sentimendua, erabakitze ahalmena, autoantolaketa, eskubidea, taldea... Hori guztia ez da aintzat hartzen parte-hartze prozesuetan. Beraz, parte-hartze sozialetik parte-hartze protagoniko baten bila joan behar dugu: hurrei lagunduz beren beharrak identifikatzen, “irakatsiz” autoantola-

tzen, prozesua kudeatzen, ebaluatzen, hobekuntzak txertatzen... izan dadin prozesu ahalduntzailea eta kolektibo gisa kontzientzia har dezaten.

Diozun moduan, helduen ikuspegitik bideratu izan da haurren parte-hartzea (batzarra eta hitza). Esperimentatu al dituzue haurren kulturatik gertuago dauden parte-hartzeko moduak?

Pilotajearen tarte zabal bat eskaini dugu aztertzeari zer den haurtzaroaren kultura, zein ezaugarri dituen. Denok izan gara haur, berehala datozkigu burura jolasa, mugimendua, sozializazioa, lagunak, askatasuna, arriskua, plazera, natura, zikintzea, bustitzea... Hurrekin egin behar badugu parte-hartze prozesua, gure lan tresnak horiek izan behar dute, eta hor ez gaude eserita eta hitzaren bidez parte hartzen. Azken finean, hizkuntza da haurrak garatzen duen azkena, ahalegin handia eskatzen ari gatzazkio bere pentsamendu guztia hitzetara ekarrarazten, komunikazio bide hori hainbeste kontrolatzen ez duenean. Hala, beste adierazpen mota batzuk arakatu ditugu: antzerkia, rol jolasak, maketak, jolasa, eraikuntza, marrazkiak, eskultura... Parte-hartzeko modu horiek, gainera, interesgarriak dira helduontzat ere, jende asko dagoen bilera batean, eta gaiaren arabera, agian ni neu ere ez naizelako ausartuko hitza hartzera, baina



parte hartzeko metodologia zabaltzen badugu, erosoago sentitu gaitezke.

Adibide bat: Garaion Sorgingunean, Araban, zumitzezko egitura parte-hartzaileak diseinatzen dituzte haurrekin. Ume bakoitzaren marrazkietatik abiatuta, adosten dute nolako egitura nahi duten egin zumitzez, eta landatu egiten dute, gero ureztatu eta zaindu, behin hazten denean kimatzen ikasten dute... Parte hartzearen helburua ere ez baita zerbait puntuala izatea, parte-hartzearen kultura sortzea baizik.

Eta kultura hori barneratzeko, nola ikasten da txikitatik parte hartzen?

Guk diogu haurra parte-hartzean hezea dela intimitatetik komunera doan ibilbide bat. Lehenengo parte-hartzea familian hasten da, etxeko giroan, hor ematen delako “ni”-aren, nortasunaren, lehen eraikuntza. Haurraren erritmoak, loa, jana... errespetatzen dituzun ala ez, hazkuntza izan daiteke autoritarioagoa edo parte-hartzaileagoa. Bigarren esparru parte-hartzailea litzateke eskola, “ni”-tik “gu”-ra salto egin eta talde batean ari da haurra, eta hor ere eskola izan daiteke parte-hartzaileagoa edo

“Haurtzaroaz hitz egitetik pasa gara haurtzaroez hitz egitera, eta beti izan dugu buruan bazterreko haurtzaroretara iristeko ahalegin berezia egin behar dugula, bestela familiek animatzen dituztenak baino ez direlako etorriko”



izan daiteke autoritarioa. Eta hirugarren parte-hartze esparrua herria litzateke: komunitatearen parte diren heinean, haurrak komunitate horren parte aktibo izatea litzateke helburua, beraien behar kolektiboak asetzeko, batetik, eta herria haurtzaroaren txikitasun horretatik eraldatzeko, bestetik.

Herriko erabakietan haurrek parte hartzea udalak bideratu behar du?

Guretzat prozesu honen gakoetako bat izan da udalak bakarrik ez inplikatzera, bestela haurra-udala edo haurra-instituzioa harremanera mugatzen dugulako. Harreman hori oso landua du Tonuccik [*Haurren hiria* liburuaren egile eta pedagogoa italiarrak], eta Haurren Kontseilua proposatzen du, zeinaren bidez instituzioek haurrengana jotzen duten haien iritzia entzuteko. Komunitatea, baina, udaletik harago doa, haur baten gertuko komunitatea beste eragile batzuek ere osatzen dute, eta pilotajearen gure apustua izan da komunitate horren ordezkaritza bat osatzea: udalarena, hezkuntza formaleko sare ezberdinetako ikastetxe eta guraso elkarteena, eta hezkuntza ez formalarena (tokiko aisialdi elkarteena). Denen artean pentsatu dugu herri mailan nola eragin dezaketen haurrek.

Irakaskuntza prozesu horretan, zein rol du helduak, haurren iritzia eta erabakietan gehiegi ez kutsatzeko, baina aldi berean dena libre ere ez uzteko?

Oreka inportantea da, baina helduok

asko dugu desikasteko, egunerokoan zertan parte hartzen dugun begiratu-ko bagenu, agian ez zaigu zerrenda luzea aterako. Alegia, helduak izanagatik, gurea ez da hobe. Pilotajea atera den beste puntu bat izan da mugen garrantzia: parte hartzeak ezin du izan dena libre, zer nahi dugun galdetu eta igerilekua, aquariuma eta beste zerrendatzea. Parte-hartzeak mugak ditu, komunitatean bizitzeak mugak dituelako, eta ez gara ari muga ekonomikoez bakarrik, muga hezitzaileak, ekologikoak, etikoak... daude.

Bestalde, haurrek parte hartzeaz ari garenean, gakoetako bat da beharra nondik atera den: udalak parke bat eraldatu nahi badu, beharra ez da haurrena, udalarena da, parte-hartze prozesua diseinatuta dago emaitza bat lortzera eta tarte gutxi dago parte-hartze hori haurren moldeetara eta denboretara ekartzeko. Aldiz, haurrengandik ateratzen bada gaia, landu nahi dutena, prozesuak beste pisu bat du, eta hor ongi adostu behar da helduak zein rol jokatu duen, ez dadin izan bera protagonista (“zuen ideiak nik bideratuko ditut orain”): helduen presentzia bai, baina menpekotasunik sortu gabe.

Haur eta gazteetatik harago, eta aurrez diseinatuta dauden parte-hartze faltsu horietatik harago, herritarren parte-hartzeak zein leku du gizartean, dena hain instituzionalizatuta, delegatuta eta indibidualizatuta dugun garaioan?

Pasa gara modu oso komunitarioan bizitzetik instituzioetan asko delegatzen. Gure parte-hartzearen bidez lortzen genituen hainbat gauza instituzioek egiten dute orain, soldatapean. Baina instituzioek mugak dituzte parte-hartze hori benetakoa izan dadin, soltatzeko eta askeago jokatzeko; horregatik, instituzioak parte-hartze prozesuan inportanteak diren arren, ezin dute lidergoa hartu, rol erraztailea behar lukete izan, sortzen ari den horri bidea eta baliabideak emateko. Udalak erraztuko du, baina komunitate bat, herritar talde bat egon dadila atzean, behar bat sentitu duena eta aktibatu duena. Eta nik uste dut herri honetan asko dugula hortik oraindik; baliabide gutxi dituzten herri txikietan adibidez, herrigintzak ateratzen ditu aurrera herriko jaiak, kirol eta kultur elkarte eta taldeak, eta beste. Badugu modu propio bat autoantolatzen eta parte hartzeko. Bestela, instituzioek



“Gakoetako bat da beharra nondik atera den. Haurrengandik ateratzen bada landu nahi dutena, prozesuak beste pisu bat du, eta ongi adostu behar da helduak zein rol jokatu duen”



parte-hartzea erabiltzen dute beren erabakiak zilegitzeko: “Galdetu dugu, jaso dugu eta egin dugu, hau da herriak nahi duena”. Baina badakigu nork hartzen duen parte halako prozesuetan eta nor geratzen den kanpoan, zein zailtasun dituen instituzioak herriko hainbat ahotsetara iristeko. Instituzioek adi egon beharko lukete herrietan pizten diren su txiki eta inizatibei bidea irekitzeko, parte-hartze dinamikak behetik gora egituratzeko.

Lau herritan, esperientzia pilotu bana egin duzue, azarotik martxora.

Zein egitura behar ditugu herrian, haurrek parte-hartze kulturara ohitzen joan daitezten, trebatu daitezten, herriko erabakietan parte har dezaten edota beharren bat badute bideratzen jakin dezaten? Lau herritan, haurren parte-hartzerako kanal iraunkor bana disei-

natzeari eskaini diogu ikasturtea, eta datorren ikasturtean, diseinatutako horiek martxan jarriko dira. Hernani, Oiarzun, Segura eta Itziar aukeratu genituen (lauak Gipuzkoakoak, Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundu duelako diruz), eta bakoitzean lantaldea sortu dugu, herriko udalaren, hezkuntza formalaren eta ez formalaren ordezkariak osatuta. Arreta eman digu gaiak zein ilusio piztu duen: hilero bildu gara eta kideak mantendu egin dira hasieratik bukaerara, arduratik eta gogotsu hartu dute gaia.

Gure hipotesia zen haurren parte-hartzerako kanal iraunkor horrek tokian toki forma ezberdina hartuko zuela, eta halaxe izan da. Gero azalduko dut bakoitzean zein forma hartu duen. Diseinatu duguna, dena den, abiapuntua baino ez dela ikusi dugu, haurrak elkartzen hasteko aitzakia, eta ahalik eta malguena izango da, haurrek eurek aldatu eta eraldatuko dutena, zeren bestela berriro ere ari baikara helduak haurrentzat diseinatzen.

Prozesu honetan, interesgarria izan da haurtzaroaz hitz egitetik pasatzea haurtzaroez hitz egitera, azken finean haurtzaroa delako beste aldagai mordo batek zeharkatzen duen bizitzako etapa bat gehiago (generoa, klase soziala, familia ereduak, desgaitasunak...), eta beti izan dugu buruan bazterreko haurtzaro horietara iristeko ahalegin berezia egin behar dugula, bestela ohitura dutenak edo familiek animatzen dituztenak baino ez direlako etorriko.

Konturatu gara, baita ere, zaila dela esperimentatzea, ez gaudela ohituta.

Teoria badakigu, prozesua dela baloratu behar dena eta ez emaitza... baina hirugarren saiotik aurrera a zer nolako urduritasuna, ageriko emaitzarik ikusten ez zelako. Horrez gain, utopia eta errealtatearen arteko aldea kudeatu behar da: argi genuen zer nahi genuen, baina beste kontu bat da zer ahal dugun. Eta oreka hori mantentzea zaila bezain interresgarria izan da.

Gainera, gai honetan ereduak falta zaizkigu. Bila aritu gara, baina oso gutxi dago eginda, Tonucciren Haurren Kontseiluak eta Unicefen ereduak, zeinetan udal teknikariak eskoletan sartzen diren, hortik aurrera gutxi gehiago, apenas dugun heldulekurik inspiratzeko edo kopiatzeko. Esperientziak falta zaizkigu eta dena dago egiteko.

Haur eta gazteentzat diseinaturiko parte-hartze kanalek zein forma hartu dute herri bakoitzean?

Seguran gaztelekuan hasiko gara datoren ikasturtean. Hilean behin Lehen Hezkuntzako haurrei ere sartzeko utzi, eta asmoa da beraiek nahi duten zer-bait ekarrita, pelikula bat adibidez, hitz egiten hastea eta haurren taldea osatzen joatea, izan dadin gaztelekua beren beharrez eta herrian aldatu nahi dutenaz eztabaidatzeko espazioa. Itziarren, Lehen Hezkuntza osoa hartu (30 ume) eta hilean behin Burugorri Martxan aisialdi taldearekin hasiko dira ametsetakako Itziar egitasmotik lanketa egiten. Hernanin, ikastetxeen ordutegien barruan egingo da, baina ikastetxetik kanpo: haurren ordezkari bat arituko da (haur asko direlako), eta lanketa batzuk ikasgelara eramango dituzte. Hernaniko Ereñotzu auzoak erabaki zuen beraien prozesu propioa egitea datorren urtean, aisialdi orduetan umeek aukeratutako gai tiraka udazkeneko misioa eta udaberriko misioa abiapuntu hartuta. Azkenik, Oiartzunen prozesuaren une batean erabaki zuten gelditzea eta datorren ikasturtean haurrekin eurekin egitea prozesua, egitura ere haurrekin beraiekin sortzeko.

2024-25 ikasturtean erronka izango da diseinaturiko horiek haurrekin eurekin martxan jartzea. Hezitzaileak formatzea ere inportantea izango da, herri arteko foroak sortzea pentsatu dugu, elkarrena partekatzeko. Eta ez dezagun ahaztu herri batzuetan haurren batzordeak badituztela edo sortzen ari direla: Azpeitia, Zumaia, Durango, Baztan, Lesaka... Goazen jakintza hori guztia biltzera,



Ezkerrean, haurrekin egindako prozesu parte-hartzaile bat, Bergaran. Goiko irudian, Arrate Gaztelu Agirre Oinherriko kidea. Pilotaje buru-belarri aritu da, Maite Azpiazurekin batera.

“Udalak parte-hartzea erraztuko du, baina komunitate bat, herritar talde bat egon dadila atzean, behar bat sentitu duena eta aktibatu duena”



behaketarako tresnak eta metodologia ere prestatu ditugu, eta ekin diezaiozun esperimintazeari.

Zuen prozesua ikerketa bilakatuko du EHUK. Zer suposatzen du?

Sekulako oparia izan da. EHUKo Auzolana Hezkuntzan ikerketa taldeak egin

dugun lan hori guztia ikerketa-lerro bilakatuko du eta Oinherritik modu intuitiboan egiten ari garen honi guztia-ri argudiaketa bat, marko bat, jartzeko balioko du, formaziorako eta dibulgaziorako aukerak zabalduko ditu. Sortu nahiko genuke tresna bat, haurren parte-hartzean sakondu nahi duen edozein herrirentzat erabilgarri.

Gainera, Haur eta Nerabeen Legea onartu berri du Eusko Jaurlaritzak eta parte hartzeko duten eskubidea jasotzen du.

Lagungarria izan daiteke, baina betiko moduan, legeak dioena dioela, baliabideak jartzen ez badituzu, ez doa inora. Eta aldi berean, udalean, eskolan, komunitatean ez badago begirada hau, ez badago barneratuta txikitatik parte hartzeko eskubidea dutela haurrek orain eta hemen, alferrik da. ●

“Erotikan ere, ez dugu lortzen produkzioetik ateratzea”

Desiraren, genero identitatearen eta erotikaren ikuspegia zabaltzeaz mintzatu da Igor Nabarro sexologoa. Nerabezaroan muineko lesio bat izan zuen, eta hori dela-eta zalantzan jarri zituen maskulinitatea eta sexualitatea. Salatu du istripuaren ostean ez zuela inongo heziketa sexualik jaso. Gabezia horrek eraman du gaian espezializatzerara.

 OLAIA L. GARAIALDE  DOS POR DOS



Igor Nabarro

Hamazapi urterekin izan zuen istripuaren ondorioz, muineko lesio bat dauka Igor Nabarrok. Orduetik, lesiotik behera ez dauka mugikortasunik, ezta sentsibilitaterik ere. Istripuaren ostean arreta psikologikoa eta medikua jaso zuen, eta eguneroko gauzak egiteko bide berriak ikasi behar izan zituen. Hala ere, salatu du bazter batean gelditu zirela erotika eta genero identitatea: “Inork ez badizu erotikaz edo sexualitateaz hitz egiten, barneratzen duzu sexualitatea hirugarren, laugarren edo bosgarren plano batean geratzen dela eta ez dela zuretzat, ezin duzulako orain arteko eredu erotikoa jarraitu”.

Istripuaren aurretik “oso barneratua” zuen zer den gizon bat izatea eta zein zen “jarraitu beharreko” eredu erotikoa: “Argi neukan zer espero zuten nitaz maila erotikoa, zer eskaini behar nuen eta zer egin behar nuen”. Gaineratu du “eredu normatiboan” hezi dela; hau da, genitaletan, penetrazioan, orgasmoan eta erekzioan zentratuta-

“Ez bagaituzte ikusten desiragarri eta desiratzen dugun pertsona gisa, informazioz ezak bazterketara eramango gaitu”

ko ereduari: “Horretan ezin bazara sartu, sentitzen duzu sexualitateari soilik nostalgiatik begiratzeko aukera izan duzula”.

Ospitaletik atera baino lehen, bisitan joan ziren lagun batzuekin hasierako eredu erotikoa erreproduzitzen saiatu zen: “Denoi gertatzen zaigun zerbait da, eta horrek frustrazio handia dakar”. Ospitaletik atera ostean, lehenagotik ezagutzen ez zituen pertsonekin hasi zen harreman sexualak mantentzen eta eredu horretatik urruntzen: “Zaila izan zen, eta frustrazio handia nuen, baina ikasiz joan nintzen nola bilatu nire pla-

zera besteen plazera ahaztu gabe, nola hasi gozatzen nire gorputzaz, besteekin loturaz...”.

Prozesu horretan, ikusi zuen sexualitatea uste baino “zabalagoa” eta “aberasgarriagoa” dela; are gehiago, “amaigabea” dela, etengabe ikasten eta deskubritzen direlako gauza berriak: “Eredu normatiboek mugatzen gaituzte, barneratzen dugu zer den egin behar duguna eta zerk emanen digun plazer gehien; hau da, atarikoak, penetrazioa –plater handia– eta ikaragarritzko orgasmoa”. Gaineratu du “produkzioan” eta “errendimenduan” oinarritutako eredu bat dela, etengabe bilatzen delako irautea, zakila dutenen kasuan tente eta gogor mantentzea, eta plazera ematea: “Inposatutako eredu bat da. Horrek ez du esan nahi plazenteroa ez denik, baina erotikan ere, ez dugu lortzen produkzioetik ateratzea”. Ezarritako bide horretatik “askatzeak” eraman du maskulinitatea eta genero identitatea beste era batera sentitzera: “Azkenean, ikasi nuen gizon izatea ez dela estereotipo

eta mandatu batzuk betetzea, baik eta nik sentitzen dudana identitate bat”.

HEZIKETA SEXUAL ZABALA

Prozesu horretan guztian ezereza aurkitu du, ez erreferenterik, ez informaziorik. Zer gertatzen da pertsona baten erotika bazter batean geratzen denean? Nola ikasten dira mugak? Nola lantzen dira norberare gorpuzarekiko eta beste gorpuzekiko harremanak? Nabaroren arabera, bi mezu kontrajarri zabalitzen dira: alde batetik, gizarteak jasotzen duen mezua da desgaitasuna daukaten pertsonak ez dutela desirarik eta ez dituztela harreman gozagarriak; eta bestetik, iradokitzen da “inputtsiboak” direla –bereziki desgaitasun intelektuala edo kognitiboa dutenak–, ez direla gai bulkadei aurre egin eta besteen gorpuzak ez ukitzeko. “Ez badago heziketa sexualik, infantilizatzen bagaituzte, eta baimenik eskatu

gabe eta zergatia azaldu gabe nire gorpuzetik etengabe pasatzen badira pertsona ugari, hala nola medikuak, senideak eta zaintzaileak, zergatik ez dut barneratuko nahi dudanean edonor ukitu eta biluztu dezakedala?”.


Heziketa sexuala pertsona guztiei zabaltzea garrantzitsua dela azpimarratu du: “Heziketa sexuala ez da nerabegarora mugatzen; bizitzako etapako guztietan egon beharko litzateke, gure biografia sexuala aldatzen doalako. Gure gorpuzak ez dira berdinak 7 urterekin, 17rekin, 35ekin, 60rekin edo 80rekin”. Horrez gain, uste du heziketa sexuala ez dela inoiz inklusiboa izan, eta nabarmendu du desgaitasuna daukaten pertsonen sexualitateak ez duela lekurik: “Ez bagaituzte ikusten desiragarri eta desiratzen dugun pertsona gisa, informaziorik ezak bazterketara eramango gaitu”. Hala ere, politikari aldatzen ari dela uste du. ●

GORPUTZEKO ATAL BAT?

Sexualitateaz hitz egiten dugunean, bi gauza geratzen dira bazterrean: azala bere horretan eta burmuina. Gorpuzeko atal batzuk erogenoak dira, baina azala bere horretan organo sexual erotiko bat da. Bitxia da muineko lesio bat daukan norbaitek hau esatea, baina lesiotik gora ere azal sentisiblerik ugari dago, eta horrek egiten du intentsitate handitzea. Burmuinari dagokionez, denok dakigu organo sexual nagusia dela, sententzioak burmuinean hasi eta amaitzen dira. Hori da landu behar duguna sexualitatea zabaltzeko”.



PALESTINA



Genozidio baten jarraipena argia.eus-en

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Egun batean Jon Hidalgo Gereñuk ARGIAko dei bat jaso zuen, eta lagun zuen kazetari batek hauxe galdetu zion erdi serio erdi txanxetan: "Zenbateko estimua diozu zure bizitzari?". Izan ere, Askatasunaren Ontzidian Turkiatik abiatuta Palestina helburu itsasoratzea proposatu zion, eta ARGIArentzat kronikak idaztea. Ezin izan zuen joan. Handik egun batzuetara beste dei bat jaso zuen Lasarte-Oriatik, galdetzeko ea egunero Palestinako genozidioaz idatziko al zuen argia.eus-en. Baietz erantzun zion: "Gaietan banuen interesa eta ari nintzen jarraitzen, haserre handiz". Maiatzaren 3an egin zuen lehenengo informazio-alea, eta gaur arte.

INFORMATZEAREN ARRISKUAK

Eguneroko lanerako bere informazio iturriak antolatuta dauzka. Zenbait sare sozial begiratzen ditu, Telegrameko pare bat kanaletan sartuta dago, eta bestelako hainbat tokitan ere bai, zeinen bidez informazio piloa jasotzen duen; nazioarteko hedabideak ere bai, batez ere *Al Jazeera*. Informazioa bila-

tzea erraza zaio, beste kontu bat da jasotakoaren egiazkotasunaz ziur egotea: "Gauzak baieztatu behar dira, begiratu behar dut zein mediok esan duen, askotan informazioa Israeletik edo hedabide yankietatik dator. Horiez ezin naiz fidatu, eta hainbat hedabidetan bilatu eta albisteak kontrastatu behar ditut. Zalantzak izaten ditut nola eman egiazko informazioa, kontu pixka batekin ibili behar dut ez emateko inork zabaldu nahi izan dituen gezur interesatuak".

Horren adibide "Israelek 'zehaztasun handiz' ezagutzen zuen Hamasen u7-ko plana, Kan irrati publikoak informatu duenez" albistea egiteagatik irakurle batek egin zion kritika. "Israelgo intelgentzia zerbitzuen txostena zen Israelgo irrati publiko batek atera zuena. Hor ikusten da interesa dutela erresistentzia palestinarren ekintza gertatzen uzteko, etekin politikoa ateratzen diote, genozidioa justifikatzen dute horrela. Alabaina, hedabide sionista batek atera zuen, hark zein interes dituen edo haien arteko botere borrokan erabiltzeko atera duten... zalantzak sortu zizkidan. Hala ere, iruditu zitzaidan guri intere-


satzen zitzaigula bere horretan jakitea". Edonola ere, kritika onak jaso ditu oro har, esan diote ondo ari dela lanean.

GENOZIDIOA EZ NORMALIZATU

Maiatzaren 3an hasita, Palestinako genozidioaren jarraipena egitea oso gogorra egiten ari zaio: "Albiste gutxi batzuk idazten ditut, baina irudi gogorrrak milaka ikusi ditut. Hildako umeak ikusteaz nago...". Egunero ari da ikusten hildakoak, bonbardaketak, eta sarraskiak. Gaza suntsitu dutela dio: eraikinak, ospitaleak, ur edangarririk ez... Sarraski batean gaurkotasuna eta interesa daukana nola bilatu ibiltzen da Hidalgo. Bere ustez, ARGIAko irakurle gehienek imajinatzen dituzte han gertatzen diren gauza gehienak: "Tristeki, hiru palestinar hil dituztela, beste bost, beste sei... jada ez da notizia. Saiatzen naiz bilatzen bestelako albisteak eta ikuspegiak, zeren egunero egin nezake albistea zenbat akabatu dituzten esateko, zenbat etxe suntsitu dituzten esateko... baina hori Gazan normala bihurtu da".

Normalizatu ez dezagun, Hildagok jarraituko du genozidioaz informatzen. ●

Bederatzigarrena eta azkena




NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Viena, 1824ko maiatzaren 7a. Ludwig Van Beethovenen (1770-1827) 9. Sinfonia estreinatu zen. Konpositore alemaniarrak bukatu zuen azken sinfonia izan zen, baina, asmoari erreparatuta, lehena izan zela ere esan liteke. Beethovenek 1799 eta 1800 urteetan idatzi zuen 1. sinfonia; bada, urte batzuk lehenago, 1793an hasi zen bere buruan 9.a jaiotzen.

Aurreko urtean, 1792an finkatu zen Beethoven gaztea Vienan, Joseph Haydn maisu zuela. Berez, lehenago bidaiatu zuen hirira, 16 urte besterik ez zituela, Mozarten ikasle izatea helburu. Baina ama gaixotu eta Bonn jaioterrira itzuli behar izan zuen. Vienara berriro joan zenerako, Mozart hilda zegoen.

Vienara bigarrenaz joan eta gutxira, 23 urte zituela, Friedrich Schiller (1759-1805) poeta alemaniarraren *Alaitasunaren oda* irakurri zuen. Gerra napoleonikoen zurrunbiloan, Beethoven gazteari nabarmen eragin zion poemaren mezuak: herrien arteko bake grina eta berdintasuna. Eta hitz horiei musika jartzea pentsatu zuen.

Hiru hamarkada geroago gauzatuko zen gaztearen asmoa, egun klasikotzat dugun pieza guztiz iraultzailea osatu zuenean. Ordurarte sinfoniek 30 minutu inguruko iraupena zuten, baina Beethovenek 70 minutura luzatu zuen bederatzigarrena. Gainera, sinfoniak berez pieza instrumentalak ziren, eta Beethovenek lau ahots eta abesbatza oso bat



BRITANNICA

gehitu zizkion, hain zuzen, *Alaitasunaren Oda* interpretatzeko.

Eta arauak hautsi arren, estreinaldian bertan izugarrizko arrakasta izan zuen. Konpositorea han zen, baina ezin izan zituen txaloak entzun, ordurako entzumena erabat galduta zuelako. Bere azken agerraldi publikoa izan zen eta handik hiru urtera hil zen.

1986tik Europar Batasunaren ereserkia den lana inoizko piezarik interpretatuena da, eta, bigarren mendeurrenaren aitzakian, lehen postu hori indartu besterik ez da egin aurten. 200 urte horietan 9. Sinfoniaren doinua guztiz barneratu dugu, Schillerren hitzek gordetzen duten mezua, ordea, ez. ●



CHRISTOPHE FOUQUIN, INRAP

Auxerreko haur txikien hilerria

Aurtengo neguan INRAPeko (Ikerketa Arkeologiko Prebentiboen Institutu Nazionala) arkeologoek nekropoli berezia aurkitu dute Auxerreko (Frantziako Estata) erdigune historikoan: haur jaioberrientzako edo hilda jaiotako haurrentzako erromatar garaiko hilerria. K.o. I. eta III. mendeen artean erabilitako nekropoliak bost maila kronologiko ditu eta

horrek berresten du garai hartan haur txikien heriotza tasa oso altua zela. Gainera, ikerlariak ikusi dute hilobiratzeak hainbat fasetako prozesu zainduak zirela eta askotariko objektu baliotsu eta babesleekin ehorzten zituztela jaioberriak. Hau da, ohiko gertakizuna izanagatik, Autessiodurum hirian behintzat, gorpuak ez zituzten besterik gabe abandonatzen. ●

ZER DA ARTALDEA? (GERTURATZE BAT)



JOSEBE BLANCO

Astebete pasatxo eman dut artaldeaz hausnarrean. Lehenago ere eskaini izan dizkiot tarreak artalde kontzeptuari ematen zaion erabilerari, baina orain dela astebete izandako elkarrizketak berritu du hari buruzko hausnarra eta paper honetara ekarri nau.

Orokorrean, ez dago ongi ikusita artalde bateko partaide izatea. Artaldeko kideak homogeneousatu egiten dira, dituzten ahalmenez desjabetu eta berezko ezaugarriak ezabatu egiten dira kolpe batez, eta seriean ekoiztutako panpinak bilakatzen dituzte epaileek.

Homogeneoak eta morroiak, irizpiderik gabekoak. Ustezko artzainak zer esan, morroiek hura egin. Ezer zalantzan jarri gabe. Aurrera? Aurrera! Gelditzeko? Gelditu! Bi izate: artzaina eta taldea. Batek agindu, besteak obeditu. Makila –hainbat elementutan gorpuztua– da haien arteko lotura bakarra.

Nik neuk ere erabili izan dut artaldea desegoki. Aspaldian, oso aspaldian, artzaina izan baino lehen. Boulevard baitaiatu zuten merkataritza-gune handia Borregard –borrego hitzari erreferentzia eginez; bildots, alegia– zen askorentzat. Sartzen eta ateratzen ziren haiengandik ezberdin ikusten genuen geure burua –eta ziur aski haiek ere gu ezberdin ikusiko gintuzten, arraroak gintzaizkien–, artaldetik kanpo.

Artalde honen kide naizenetik ez dut Borregard hitza erabili. Ezin hutsaldu hainbeste ematen didana. Ezin ezereztu artzain egiten nauen hori. Izan ere, ardiek egiten naute artzain; haiek gabe ez naiz. Ezina, dudarik gabe, ezagutzatik datorkit –ez nuke orojakiletzat inork hartzea–, ardiekin bizitza konpartitzetik.

Ardiekin bizi denak badaki ardi guztiak ez direla berdinak, denak ardiak izan



DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

arren. Badirela urduriagoak eta otzana-goak; maitekorrangoak eta zakarrangoak; talde-zaleagoak eta bakartiagoak; ausartagoak eta beldurtiagoak; taldearen buruan joatekoak eta atzealdea nahiago dutenak. Eta denak ezinbestekoak.

Ardiekin bizi denak badaki kide bakoitzak baduela funtzio bat ekosistema horretan –beraz, erraz ondorioztatu daiteke artaldearen talde-izaera aldatuko dela kide bat hildakoan, edo jaiotzean–. Eta ekosistema horren azken helburua dela kolektiboaren bizitzari eustea, kide guztien ongizatea ziurtatzea.

Uste dut, maiz, artaldea eta ardi pila nahastu egiten direla. Lehenengoan kideen arteko interakzioak etengabeak dira, eta azken helburu hori beti dago presente, ezkutuan bada ere. Bigarrenean, ordea, kolektiborik ez dago, eta pilaketa apurtutako edalontziaren pusketak poltsa batean jasotzea bezain alferrikakoa da. Hau da, inork zati horiek

itsasteko lanik hartu ezean, ez dago ur tantarik edaterik.

Horretarako dago, besteak beste, artzaina. Bere funtzio nagusia, zalantzarik gabe, artaldearen bizitza ziurtatzea da, ahaztu gabe, hori bai, bera ez dela kanpotik agintzen duen elementua eta ardie-na bezala, bere existentzia artaldearen existentziari berari dagoela lotuta. Horregatik babestu behar du artaldea arriskuetatik; horregatik, jatekoa ziurtatu; horregatik, kide guztiontzako bizigarria den bizitza lortu eta mantendu.

Giza-taldearen funtzionamendua aztertzen dituzten horiei gomendatuko nieke artalde batean murgiltzea. Horrela, holoibiontea zer den deskubrituko lukete: hainbat espezie elkartzeko entitate bat sortzeko, denboran iraungo duen ekosistema, bere kideak zainduko dituena.

Orduan, artaldean bizitzea desiragarri litzateke. Orduan, artaldeak sortzen hasiko ginateke, elkar zaintzeko. ●

A ZE FAUNA!

PAGADIKO ERLIKIA



IÑAKI MEZQUITA ARANBURU
ARANZADIKO KIDEA

Kakalardo adar-luze honen irudiak ez du zalantza izpirik uzten: ez du parekorik. Gure lurretan, eta Europa osoan ere, genero honetako espezie bakarra da. Bere tamaina handiak (kakalardo bat izateko, noski) eta bere kolorazioak gure begietan betiko txertatzen dira ikusteko zoriona izandakoan. Eta zorion hori, dirudienez, gero eta urriagoa da. Bere biologia eta gizakion jokabidearen ondorioak ez baitira ongi uztartzen. Ikus dezagun bada bere biologiaren laburpena.

Rosalia alpinaren bizi-zikloak bizpahiru urte irauten du normalean; bere garapenerako baldintzak aldekoak ez dituenean luzatu egiten baitu larba fasean igarotzen duen epea, antza denez. Pagadi zaharrei loturiko espeziea da, eta zutik edo eroritako pagoetan bizi da larba fasean. Egur lehorra du gustuko, eta nahiz

eta eroritako enborretan sarritan aurkitu ahal izan, hezetasuna arerio du. Larba-fasea luzea da, hiru estadio edo urrats izaten ditu eta enborraren barnean betetzen du. Esan bezala, bi urte edo gehiago iraun dezake, baldintzak bere aldekoak ez badira (bizi den enborra hezetasunak hartzen badu, adibidez). Pupa fasea ere enbor barruan betetzen du. Heldutasunera ailegatutakoan, pupa zeneko azala puskatu eta enborretik atera egiten da larba fasean irekitzen duen bidexka batetik. Arrek emeek baino egun batzuk lehenago bukatzen dute metamorfosia (astebete edo). Hegaldi epea –intsektuaren heldutasun fasea, alegia– oso laburra izaten denez –egun gutxi irauten baitute hegan klimatologia edo harrapakariengatik–, espezie honek zailtasun gehigarri bat du ugartzeko garaian. Intsektu helduak apiriletik urrira aurkitu daitezke,

ROSALIA ALPINA

Rosalia alpina

TALDEA: Ornogabea/Intsektua/
Coleoptera/Cerambycidae.

NEURRIA: 15 eta 38 mm bitartekoa.

NON BIZI DA? Europako pagadietan (Hegoalde eta Erdialdean).

ZER JATEN DU? Egur hila.

BABES MAILA: European babestua. Euskal Katalogoan "Interes bereziko espeziea".

baina ekaina eta uztaila dira hilabete oparoenak ikusi ahal izateko.

Bere itxura aparta da, kolorazio nagusia gris-urdinxka da, ileguri itxurakoa. Hegoak babesten dituen azalek (elitroak) mantxa beltz batzuk dituzte. Mantxa horien diseinua aldakorra da oso, eta asko aldatu daiteke ale batetik beste batera. Antenak oso luzeak dira, eta ar batzuek bere gorputzaren luzeraren bikoitza izatera ailegatu daitezke.

Rosalia alpina pagoei lotuta dago eta, nahiz eta beste zuhaitz batzuetan aurkitu ahal izan (zumarra, lizarra, sahatsa, xarma, intxaurrendoa...) beti pagadiaren hedapen mailan aurkitzen da. Zutik dau den edo eroritako zuhaitzetan aurkitu daiteke, baina hezetasuna ez du atsegin eta egur lehorra eta ondo aireztatua biltzen du.

Europako liburu gorri ia guztietan aurkitu daitekeen espeziea da, baina bere populazioen hedapena eta espeziearen ugaritasunaren inguruan ezjakintasuna handia da. Hegoalde eta Erdialdeko Europako espezieetat hartzen da, eta iberiar penintsularen iparraldean soilik aurkitu da. Dena den, lehen esan bezala, asko falta da bere benetako hedapena eta ugaritasuna ezagutzeko. Ez ahal dugu jakin aurretik desagerraraziko! ●



IÑAKI MEZQUITA ARANBURU

TOMATE ANDEREA ETA PRESA KONTUAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Azer lanak ematen dizkigun! Txoratzten gaitu tomateak (*Solanum lycopersicum*). Artaxoakoa dela, edo Tuterako Itsusia, edo Aretxabaletakoa, edo Erandiokoa, pikoluzea, gerezia dela, madari tomatea dela, Igeldo, mendigorria, transgenikoa dela, Eusko Labela dela, idi-bihotza, korta dela, harritza... gero eta barietate gehiago dugu gure baratzeetan. Eta datozenak!

Gure ume garaitan ia ez zen tomatea gordinik jaten. Ordura arte tomatea egingakoa, saltsan jatekoa erabiltzen zen. Soro bazterretan landatzen zen egiteko tomatea, jeneralean madari-tomatea, gaur egun arta-babarrun sailen ertzetan kuiak jartzen diren tankeran, arrastan lurrean zabaltzeko. Gero etorri ziren entsaladan jateko klaseak; eta jaten ere ikasi egin behar. Immigrante espainiarrek erditik ebaki, gatz ttantta bat bota eta koskaka jaten zuten. Guk azukrearekin maniatuta ikasi genuen jaten. Gero etorri zen olio-ozpin saltsa.

Eta egun txoratu egiten gara tomatearekin. Tomate anderea gure baratzeetako erregina buruntzatu dugu. Eta dema zabaldu da. Nork dakar lehen tomatea plazara. Nork erakusten du handiena, kilotik gorakoa. Eta barregarriena, nork darabil trikimailu xelebreena. Denetik ikusten da. Zenbaitek oraindik tomate landarea



PABLO PICASSO

Pablo Picassoren Tomatea, 1944an pintatutakoa.

gorrin gaitzetik itzurtzeko kobrezko harria sartzen dio enborraren oinean alde-nik alde. Baratze ez gutxitan landareak erabat hostoz soilduta eta aleak zintzilik dituztela ikusten dira; landareek jakiak sortzeko hostoak nahitaezkoak dituztela ez jakin. Aparteko atala merezi dute apirileko lehen epel haizearekin tomateak landatzen dituzten egonarri gutxiko xaxpiki presatu horiek...

Tomatearekin presaka bazabiltza, aintzat hartu datozen aholku hauek: toki

bero eta lehorrena hautatu, horma egutera onena. Kontuz azkarregi landatzearekin eta gehiegi ongarriztearekin: mehe eta luze haz daiteke eta loretarako begi gutxiago sortu. Hautatu goiz loratuko den barietatea, gerezi tomatea, adibidez. Negutegian martxoan edo kanpoan izotz beldurrik ez denean landatzeko asmoa baduzu, erein hazia barru epel batean zortzi aste lehenago; ibili sartu-atera egun batzuetan, kanpora ohitzeko. Lurraren mailatik altxatuko tauleak dira landatzeko onenak, gehiago berotzen eta lehortzen dira; simaurra edo luarra, zizare-lurra eta silize harea nahastu lurrari. Azpiak egin txirbilarekin, artilearekin, paper edo kartoi birrinduekin... Honela lurra epelago egongo da. Inausketa zorrotz egin, hostoaren oineko kimuak azaldu ahala, ttiki-ttikiak direla kendu. Ongarriketa findu; landarea gaztea denean luar-tea, arrain urak, gorbela eta antzekoak erabili ongarriketa arina baina aberatsa emateko. Nitrogenoarekin kontuz, hosto asko eta ale gutxi dakartza; fosforoak, aldiz, lore eta fruitu gehiago.

Eta Euskal Herri atlantikoan bizi behar badute, gogoan izan: tomateek txapela maite dute. Jarri plastiko garde-nezko estalki bat, alboetatik irekia baina euri gogorak eta ihintza guztiak kenduko dizkiona. ●



ReynoGourmet.com



Zigilu honen atzean, zapore on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak, jakinduria eta lana daude.

REYNO GOURMET, NAFAR KALITATEA

LAUDIOKOLORE

“TROIKOETAKOAK BEZAIN IKUSGARRIAK AGIAN EZ, BAINA EDERRAK DIRA HEMENGO ORKIDEAK”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Joxe Blanco Gomez laudioarra Lamuzanaturgunea blog-aren bultzatzaile eta Laudiokolore ekimeneko kidea da. Urteak daramatzate Laudion basa landareen inguruko sentsibilizazioa eta formazioa egiten, eta maiatzean, Arraño mendiko baso orkideen inguruko jardunaldiak egin zituzten. “Bloggerako bertako zuhaitzen eta basa landareen inguruan ikertzen ari ginela, basa orkideen espezie kopuru handiak harritu gintuen, eta orkidea populazioen jarraipenean zentratu gara azken urteotan”, azaldu du. Hainbat hitzaldi eta basa orkideak ikusteko bisita gidatu egin dituzte.

JAKINMINAK BULTZATUTAKO BOLUNTARIOAK

Blancok nabarmendu duenez, sareko kideak ez dira zientzialariak, zaletuak baizik: “Punkaren munduko ‘egizu zuk zeuk’ filosofian oinarritzen gara gu, jakinminetik herriari ekarpena egin nahi diogu”. Basa landareei eta orkidea basatiei lotutako gaiak lantzeaz aparte, urteotan bestelakoak ere landu dituzte: etnobotanika, toponimia, landare inbaditzaileak, zuhaitz berezien mozketen salaketak... “Sare txiki modukoa da gurea, edonorentzako irekia dagoena”, gehitu du. Herritar zientzia egiten dute Laudiokoloreak ekimeneko kideek.

Eta, zergatik orkidea? Honela azaldu digu lore berezi horrekiko interesa: “Orkidea hitza entzutean, tropikoetan jatorri duen loradendatako lore ikusgarriarekin gogoratzen da jendea, baina orkideak kontinente guztietan daude, baita Euskal Herrian ere”. Zenbait iturrien arabera, ehun orkidea espezie ingu-



ru ditugu gurean, eta Laudioko Arraño-Lamuza eremuan bakarrik, 24 espezie identifikatzera iritsi dira. “Europako zuzentarau batek dio hamar espezie baino gehiago hazten diren eremua orkideen ‘aparteko gun’ eta lehentasuneko habitata dela”, gehitu du.

ORKIDEAK EZAGUTZERA EMATEKO ETA BABESTEKO EKIMENAK

Giza jardueraren presioagatik Arraño mendiko orkidea basatiak arrisku egotzen zedela ikusi zuten elkarteko kideek, eta babesteko helburuarekin, itxitura txikiak egiten aritu dira urteotan. “Laudioko Udalarekin batera hainbat ekimen burutu ditugu, babes egiturak hobetu, belar mozketak doitu, bisita gidatuak antolatu...”. Aurtengoan, berrikuntza moduan, hilabete osoko jardunaldiak egin dituzte, tartean hitzaldi, bisita eta beste hainbat ekitaldirekin. Bisite sekulako arrakasta izan dutela nabarmendu du taldekideak, eta balorazio oso positiboa egin dute. “Udazkenean jardunaldien bigarren zatia egingen dugu”, adierazi du.

Klima larrialdiaren aurrean egoera etsigarri xamarra dela uste du Blancok, baina baita ere inoiz baino beharrezkoagoa dela aldaketak eragiteko horrelako ekimenak antolatzea: “Egungo errealitate beltzari ekimen positiboekin erantzutea ezinbestekoa dela uste dugu”. ●

KRONIKA

'LIBURU AUSARTAK' JARDUNALDIA

Isilak, mutuak, zuriak... eta ausartak

Otsailaren 23an abiatu ginen Zaragozara (Aragoi) lagun bat eta biok. Bera Haur Hezkuntzako maistra eta ni literatur dinamizatzailea. Album! elkarteak (haur eta gazte literatura argitaratzen duten argitaletxe independenteak biltzen dituen egitura) antolatutako ikastaroak gure arreta piztu zuen. Aragoiko Bibliotekan hartu gintuzten; *Libros audaces* (Liburu ausartak) lelopean bi eguneko programa zuten osatua. Hitzik gabeko liburuak, liburu isilak edo mutuak. Irudia euskarri nagusi (eta ia bakar) duten liburuei buruz aritu ginen orduan, eta han aztertutakoak xehatuko ditugu artikuluan.

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Aurreneko egunean hainbat argitaletxeren mahai-ingurua izan genuen alde batetik. Zergatik eta zertarako argitaratu liburu ausartak, zer suposatzen duen erabaki horrek, nola aukeratzaren diren materialak eta ikastaroaren antolatzaile zen elkarteko kideek argitaratutako adibide batzuk erakutsi zizkiguten. Originalak eta interesgarriak izanik, liburuak gure eskuetan izateko irrika sentitu genuen, poltsikoan egingo genuen zuloaren beldurrarekin batera. Bestetik, haur literaturan arte abstraktuaren erabilera historikoa zein izan den kontatu zigun Anna Castagnolik. Hizlari bikaina da, sutsua eta apasionatua.

Bigarren egunean ere hainbat ekintza egin genituen, denak interesgarriak. Baina artikulua hau egitera animatu nauen interbentzioa ekarri nahi nuke orriotara. Rosa Tabernerok zuzendu eta María Jesús Colonek ikertutako lana aurkeztu zigun azken horrek: *El álbum sin palabras y la construcción de una comunidad lectora en la biblioteca pública* (Hitzik

gabeko albuma eta liburutegi publikoetan irakurle taldea eratzea). Landa eremuko herri txiki bateko liburutegian 3 eta 11 urteko 41 haur elkartu ziren ikasturte batean zehar. Haurrak talde txikitik elkartzaren ziren hitzik gabeko albumak irakurtzeko. Ba al dakizu album hitzaren jatorri etimologikoa zein den? Nik ere bertan ezagutu nuen: latinetik dator eta zuria esan nahi du.

Saio horietan haurrek liburuak irakurri, interpretatu eta iruzkindu egiten zituzten Colon ikertzailea behatzaile zegoen bitartean. Ikusi zuen lehen gauzetako bat honako hau izan zen: idatzizko testuak ulertzeko erabili behar diren tresna eta gaitasunak erabiltzen zituzten haurrek irudien zentzua ulertzeko. Gainera, hitzik gabeko albumek ahoz-kotasuna eta kolektibotasuna hobesten zuten. Izan ere, irudien irakurketak interpretazio ugari sortzen zituen eta egoerak hipotesiak kontrastatzera behartzen zituen. Modu horretan, irakurle komunitate inklusiboa sortu


zuten: adin, jatorri eta maila akademikoaren gainetik parte-hartzea errazten zuten albumek.

Hainbat libururen adibideak jarri zizkigun eta saioetako audioak entzun ahal izan genituen. Hasieran, haurrek egiten zituzten irakurketak deskribatzaileak ziren oso, baina poliki-poliki interpretazio narratiboak egiten hasi ziren. Behin irakurketa amaituta eta irakurritakoari buruzko elkarrizketa edukita, berri-rakurketa bat egiten zuten, kontaketa urrunagotik eginda: pertsonaien sentimenduak aipatzen zituzten, pertsonaien arteko harremanak zeintzuk ziren komentatzen zuten edo irudiek esaten ez zuten zerbait gehitzen zuten. Horrez gain, zalantzak partekatzen zituzten, hausnarketarako galderak planteatu eta ideia arteko loturak egin. Finean, irudiak irakurtzeko, idatzizko testuak irakurtzeko erabiltzen diren estrategia narratibo konplexuak erabiltzen ari ziren: deskribapena, interpretazioa eta analisi kritikoa.





Wave (Olatua) goian, eta ezkerrean *Mirror* (Ispilua) eta *Shadow* (Itzala) lanak. Eskuinean *Kintsugi*, Boloniako haur eta gazte literatur azokako lan irabazlea.



Entzun ahal izan genuen adibideetako batean, agerikoa zen nola hurrek al-buma antzetzeko erabakia hartu zuten, bakoitzak pertsonaia baten ahotsa jarri eta elkarrizketak asmatuta, norbaitek narratzailearen rola hartuta eta abar. Beste batean espontaneoki marrazten hasi zirela kontatu zuen Colonek. Eta hitzik gabeko albumek sormena suspertzeko zuten funtzioari balio handia eman zion. Irakurketa ohiturak ere aldatu egin ziren espermentua egin zuten herrian. Liburutegia elkartzeko gunea bezala identifikatu zuten bai hurrek eta bai familiekin, herriko jendearen irakurketa ohituretan eraginda.

Tonu nahiko lauan hitz egin zuen Colonek, baina ikerketako ideia nagusiak, adibideak eta ondorioak kontatu ahala bihotz taupadak azeleratu zitzaizkidan, burmuina martxan jarri zitzaidan eta interes handia piztu zidan. Izugarri gusatu zitzaidan hizlariak kontatu ziguna. Artikulu honetara adibide gutxi batzuk ekarriko ditut.

Helduok ilustratuak diren liburuekiko aurreiritzi dezente eduki ohi ditugu,

eta hitzik gabekoak badira, are gehiago. Hitzik gabeko liburuen artean, ordea, badaude helduontzat oso interesgarriak diren materialak. Suzy Leerenak ezagun samarrak dira: *Mirror* (Corraini, 2003), *Wave* (Chronicle books, 2008) eta *Shadow* (Chronicle books, 2010), esaterako. Hirurek amankomunean dutena mugaren inguruko hausnarketa da. Zeintzuk dira erreala eta irudimenaren arteko mugak? Muga bat al dago bien artean? Ametsak zein dimentsiotakoak dira? Eta zeintzuk dira liburuaren mugak? Anbiguotasun horretan mantendu ohi gaitu autoreak, irakurlea ere arinaren eta sakonaren arteko mugan jarrita. Protagonistek bezala, irakurleok ere gozatu eta jolasteko egin dituela mugak esan izan du autoreak, irakurketa jolasa ere badela gogorarazteko.

Jardunaldietatik bueltan, Boloniako haur eta gazte literatur azokako irabazlea Issa Watanaberen *Kintsugi* liburua zela jakin nuen. Hura bai sorpresa. *Kintsugi* hitz japoniar bat da: zeramikako pieza hautsiak erretxina eta material

nobleekin konpontzeko arteari esaten zaio, hausturak bistan utzi eta piezak izan duen bizitza hauskorrari edertasunezko balio bat emateko helburuz egiten dena. Berehala irakurri eta liluratu ninduen. Autorearen ama ere ilustratzailea da, eta aita poeta. Watanabek poesia ilustratzen du hitzik idatzi gabe. Atzealde beltzaren gainean garbiak eta eleganteak diren ilustrazioek hartzen dute protagonismoa. Ikasitakoak estimulatuta eta liburu argitaratu berria eskuetan frogatu beharra nuela pentsatu nuen: lagun bati oparitu nion eta idazteko gogo berpiztu zitzaion. Irakurle taldeetan pautarik eman gabe proposatu eta irakurketa kolektiboak egin ditugu. Hurrek bezala, lehenengo irakurketa deskribatzaileak egin ditugu, gero interpretatzaileak eta analisi kritikora iristeko elkarrizketak jarri dira martxan. Erresistentzia puntu batekin hasi garen arren, algarek, jolasek eta harridurak hartu dute lekua.

Gu ere hala bueltatu ginen Zaragozatik etxera. Pozik, poltsikoak hutsik baina bihotzak beteta. ●



Hitz gezidunak

SALATARI ZILEGI		NAFARROAKO HERRIA ABANTZU, KASIK	USO AR			ETXERO HEGAZTI IRUSTEZ	INTSEKTU MOTA (PLU- RALEAN) SEGURKI	ITSASO GIPUZKOAKO HERRIA	
ERREKA LAUGARREN MUSIKA NOTA						PERTSO- NAIAREN IZENA GAILUR, TONTOR			
		BIZKAIKO KOSTALDEKO HERRIA UXARKA		HEGAZTI MOTA PERTSO- NAIAREN ABIZENA		GUSTURA ERRUSIAKO ENPERADO- REA			
TXORRO GERNUA							IZAN, EDUKI GAURKO		
			TXOSTEN NARRAS, ARLOTE					BEGIRADA ABERRIA	
HARRINABAR	AISATU ADITZAREN ERROA ESERLEKU, JARLEKU				AMIGDALEN HANTURA JOERA, ZALETASUN				TXERRIA
						UKO EGIN SENDABELAR IZENA			
OINARRIZKO EDARI BILOAK		SEI ZATI BERDINE- TAKO BAT BARAZKI HOSTOTSUA						GALDETZAILE OKELAREN ZAINA (ALDE- RANTZIZ)	
				HAZKOR SUARI DARIONA					DEUTERIOA EUSKAL FONEMA
JAUNTXXO FINALAU- RREKO						UGAZTUN HARAGIJALE 500 ERROMA- TARRA			
							PALESTINAKO LURRALDEA		

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

1				5		4	2	
7			8		3			
5	3	4			1	7	8	
	7	8	9			6		
			4	3	8	9		1
3		1	6		5			2
8		7		2	9			
9	1	3		8				
				7	1		8	

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- Akatsik gabe.
- Madari.
- Egokia edo trebea ez dena.
- Modura.
- Neu, nihaur.

EBAZPENAK

- ZUZEN
- UDARE
- ZABAR
- ERARA
- NERAU

8	6	1	7	6	3	5	2	4	7
9	7	5	8	4	2	6	7	1	3
8	6	7	1	2	3	5	4	9	8
3	9	1	6	7	5	8	4	2	7
6	5	2	4	3	8	9	7	1	5
4	7	8	9	1	2	6	3	5	7
5	3	4	2	9	1	7	8	6	7
7	2	6	8	4	3	5	1	9	8
1	8	9	7	5	6	4	2	3	7

V	A	Z	A	G	I	D	R	E	L	V	N	I	F
E	O	I	O	K	E	K	E	Z	V	K			
D		A	V	Z	H	V	K	A	E	L			
R		Z	N	E	R	E	S	E	R	U			
U	K	A	T	U	K	A	R	V	A	N	V	A	H
	V	A	N	G	A	N	V	A	S	A	V		
O	S				I	S	O	D	V	X	I	P	
N	K	A	N	U	S	T	U	S	R	U	K	A	
V	A	R	A	G	A	R	U	E	V	A			
E	I	R	E	L				S	L	V	L		
Z	V	T	A	B				U	Z	I	V	H	
O	O	O							V	S			



Suak berotu gaitzan eta ez erre

 AINHOA MARIEZKURENA

Erlijio kristauak sorginen ezagutza, jakinduria eta autogestioa akabatu zituen pentsamendu eta, hortaz, bizimodu zehatz bat inposatuta. Torturatuak, bortxatuak eta erailak izan ziren. Uste erlijioso horiek Europako zoko guztietara eraman nahian, sutan erre zuten praktika paganoak egiten zituen hainbat herritar. Egun dugun egutegia kristaua da eta zein gau hoberik, urteko luzeena, gertatutakoa gogoratu, sinesmen erlijioso kristauari aurre egin, elkartu eta festa egiteko akelarrean.

Urtetan ekitaldi herrikoi eta pagano batek hartu du Hernaniko plaza San Joan gauean. Jaiei hasiera ematen die eta antzerki forma dauka, baina dantza, musika eta kantua ere gehitzen zaizkio, formatu horretako sorkuntzetan izan ohi den moduan. Naturari lotutako elementuek giroan kokatzen dute hasieratik: egurrek, makilek, adarrek, lastoak eta suak, besteak beste; baita pixkanaka agertzen diren sorginek, adarrak dituzten izakiek eta akerrak ere. San Joan gauean suak protagonismo handia du, baina ez da Elizak piztu zuen hori, ez, Euskal Herriko ohitura zahar guztiek bezala, naturaren fedeari eutsi eta udari ongi etorria ema-

teko eguzkia irudikatzen duen elementua baizik. Pena da urteroko ekitaldi tradizionalean pizten dela "benetako" sua, akelarrearen ondoren. Ikusleak su hori espero du, eta kontaktzen ari garen proposamen herrikoia anekdota baino ez da izaten.

Ekitaldia lehenengoz proposatu zenean herriko hainbat fededuni mina eman zien arren, gero eta begirada gehiago bereganatu ditu. Aurtengoan 20:00ak baino dezente lehenago hurbildu da jendea lekua hartzera. Euri jakak ez du inor etxean uztea lortu, are gutxiago parte-hartzaileak. 300 bat badira eszenatokian, gehienak gazteak, begira garenon zirrarak puzten. Eszenatokia plaza izanik, borobilean eseri dira gehienak. Zuziak eusten sartu direnek protagonismo handiagoa hartu dute, eta erdialdean dagoen lasto gainean irudi esanguratsua antolatu dute. Haiek izango dira gero Inkisizioak epaituko dituenak eta kontra egingo dietenak, orgia moduko batean festa egiten amaituko dutenak, garaile.

Edozein dramaturgian ezin da gaztaka sortuko duen elementurik falta eta hemen Eliza da paper hori betetzen duena. Zuriz eta ondo jantzita datoze-

HERNANIKO AKELARREA

NOIZ: Ekainaren 23an

NON: Gudarien Plazan (Hernani)

HERRITARREK zuzendu eta antzetzu dute obra

nak dira traidoreak eta inposatzaileak. Sorginak epaitzera eta erretzera datoz, oldarkor. Ikusleak haien aurka kokatzea "lortzen" dute, ordea. Aurretik bi sorgin agertu dira istorioa kokatzera, haien eguneroko egoera xume bat irudikatuz. Bere erara bizi diren bi pertsona dira, eta sendabelarren gaineko ezagutza dutela agerian geratu da. Inkisidoreek hori desagerrarazi nahi dute, ez baitute inoiz onartuko euren mugen barruan egongo ez litzatekeen bizimodurik; ez sormen-eta egite-jakinduriarik, ez gorputza eta sexualitatea era askeagoan biziko duenik, ezta bere kabuz pentsatu eta agintea ukatuko duenik ere. Inkisidoreak sorginen pentsamendua garatzea galaraztera eta edonolako agintaririk gabe bizitzeko ahalmena ukatzera etorri ziren, eta pena eman dit fokua horretan ipini ez izanak.

Sormen herrikoiek badute kohesio sozialari eta koherentzia kolektiboari eutsi nahi izateko joera, eta hortaz, logika komunari eutsi nahi diona. Dena den, egungo errealtaterara ere ekarri dituzte ideia haiek Palestinan gertatzen ari den genozidioa gogora ekarrita, eta "orduko inkisidoreak gaurko militarrek dira" bezalakoak esanda, besteak beste. ●



LIBURUA

Begirada gurutzatu eta engaiatuak



GEREZI-DENBORA

MONTSERRAT ROIG

ITZULT: AMAIA APALAUZA OLLO

CONSONNI, 2024

AMAIA ALVAREZ URIA

Sorpresa ederra izan da Consonni argitaletxeak argitaratu berri duen liburua. Ez nuen ezagutzen Montserrat Roigen lana eta aurkikuntza harri-garria izan da, zinez. Batetik, Franco hil berritan argitaratu zelako estreinakozeleberria (1976an) eta garai hartako Bartzelona irudikatzen digulako begirada zorrotzez, alderdi sozioekonomiko eta politikokoak aletzen baitira bertan. Bestetik, familia baten historia ekartzen digulako, hainbat belaunalditako kideen argi eta ilunekin, baina, batez ere, kanpo begirada batetik ezagutzen ditugun pertsonaiak, gerora, barruko ahotsetik entzuteko aukera ematen digulako, horrela, gure begirada birkokatzen behartzen gaituela.

Natàlia Miralpeix, hamabi urte Frantzia eta Ingalaterran bizi ondoren, Bartzelonara bueltatuko da. Diktadura fran-

kistak Julián Grimau atxilotu zuenean –1962an, eta hurrengo urtean fusilatu zuten– joan zen eta Salvador Puig Antich exekutatu zutenean (1974an) bueltatu zen. Garai nahasiak bizi zituen bere familia burgesak eta erregimenaren amaiera eta garai askegoen promesa artean dabiltza, ahal duten moduan.


Izenburua Jean-Baptiste Clément-en poesia batetik hartu zuen egileak, Pariseko komunarekin lotura duen kantua dela diote, baina gaia maitasunaren eta zoriontasunaren nostalgia ere izan daiteke. Eleberrri honetan, haurtzaroaren eta gaztaroaren loraldiak gogoratzen dira eta helduaroaren eta zahartzaroaren gainbeheraz penatzen.

Engaiamendu politikoa ere oso presente dago, baina modu gatatzatsuan aurkezten da, ez era idealizatuan. Fa-

milia “on” batean katalanismoa, anarkismoa, antifrankismoa eta feminismoa agertzen dira eta langile klasekoekin eta pobreekin protagonistak izaten dituen harremanak ere gordin agertzen dira.

Asko gustatu zait, besteak beste, sexualitatea aske bizitzeko nahiarekin deskribatzen diren pasarte homoerotikoak, izan gizon ‘hetero’en artean, izan emakume ‘hetero’en artean; baita manifestazioa eta atxiloketa kontatzen diren zatia ere; edo hildako lagun minen doluak zenbateraino baldintzatu ahal dituen bizitzak.

Egilea kazetaria zen eta protagonista argazkilaria. Bien begirada analitikoak dugu orriotan, aldaketa garai bat ulertu nahian, liburuaren azalean arrokek eta eguzkitakoek ezkatzen dutenari buruz jardungo zaizkigunak. ●



MUSIKA

Poltsikoetan eramateko kantuak



KORDOBA BIDEA BORLA

FLEXIDISCOS, 2024

XALBA RAMIREZ

Ezin da talde baten irakurketa egin bere taldekideen iragana kontuan hartu gabe; eta kasu honetan, are zailagoa da ariketa. Tatxersekide bat dago eta Tatxers taldea dakar gogora Borlak. Ekidin ezina da aurreko taldean pentsatzea, baina motz geratuko gara, *chorus* dun gitarra garbien atzean talde fresko eta originala dugu-eta Borla.

Iruñean elkartu ziren irakaskuntza masterrean, eta bizitzari piper eta gatz puntu bat gehitzeko hasi zen hirukotea elkartzen. Bestelako hainbat proiektutan badabilta hirurak, baina egunero koaren asperdurari nolabait aurre egin

behar. Martin Ciriza Tatxersen dabil, Timéo Dedieu Blessuren eta Ander Redin Comic Sansen, besteak beste.

Pop elegantea dute ikur, baina bihotza punkean dago. Autogestioaren giroa ondo baino hobeto ezagututa, jada lortu dute tokitxo bat. Demo txiki bat argitaratu ostean, *Kordoba Bidea* lana argitaratu berri dute Flexidiscos argitaletxearekin.

“Mila gauza egiteko eta ezer egin gabe”, egunerokoa eta naturaltasuna dituzte eraikuntzarako material. Ez dute arazorik errimetan poto egiteko, errimatzten dute *ruido ruido*-rekin, eta lasai demonio geratzen dira. Hori baino plazer

handiagorik! Potoari beldurra galduta, edozer kontatu daiteke.

Iruñeak kanpotik bizi-bizia dirudi, eta edozein unetan lehertzeaz dagoen hiri da hiri buruzagia. *Astearteko jazz*a kantuan, ordea, asperdurari nola aurre egin asmatzen ez duen gaztea topatzen dugu, batetik bestera, kasik noraezean: “Gerra berri bat hasi da nire logelan”.

Hori da Borlaren gakoa: letra txikiak, poltsikoetan eramateko moduko kantak dira. Alabaina ez dira kanta txikiak, egunerokoa eramangarriagoa egiten baitute, eta elkarrekin egoteko gogo handiago ematen dute. ●

Kontsola gaitezen, AEBetan are okerrago baitago asuntua

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Puzker usaina besterik ez dator Europatik azkenaldian eta Frantziako hauteskunderen lehen itzuliko emaitzak ikusita, iruditzen zait denbora gehiegiz auto instituzionaleko ispiluan zintzilik egon den Arbre Magique desodorizanteak ez duela askoz gehiagorako ematen. Kiratsa zoko guztietara iritsi da, partidu ultraeskuindarren jariakinak sudurreratu nahi ez dituenak gas-maskara jantzita ibili beharko du bolada batez. Noski, kalean piura horrekin ibiltzeak ez dio inori preseski pertsona normalaren itxurarik emango. Eta hori da kezagarriena. Alegia, konturatzerako normaltasun diskurtsiboa unga-unga ultra bat bihurtu dela –eta hortik kanpoko ia dena berriz, friki-hippy-erradikal-militonto-woke saldo desordenatu baten xelebrekeria–.

Euskal Erdian, zorionez, oso garatuta daukagu mekanismo psikologiko bat berri txarrak datozenean kontsolatzen


laguntzen diguna: gure burua okerrago dagoen norbaitekin konparatzea. Deituiozu erresilientzia-gaitasuna. Deituiozu autoengainua. Kontua da funtzionatu izan duela, EAEn behintzat. Eta urtetan gainera. Langabezia gora ta gora Euskadin? Bah, Espainian baino gutxiago. Ustelkeria kasuak administrazioan? Moteillak, ez konparatu lekuz aldatu diren hemengo lau sos Ebrotik behera normal-normal egiten diren atrakoekin. Eta horrela guztiarekin, jo ta ke, Euskal Oasiaren mitoa sortu arte.

Pentsatzen dut Ipar Euskal Herrian ere has gaitetzkeela gaur goizeko zortzietatik konparakeria horietan, azken finean lehen itzulian lepenisten esbirroek ez dute nagusitzea lortu: “Aturritik gorako bertze horiek baino xuxenago behintzat aritu gara”, esango du batek, moderatuki; eta besteak, animatuago: “Miraria obratu dugu eta! Colette Capdevielle ikono antifa bilakatu dugu!”.

Baina pena litzateke euskal pentsamendu politikoak sortu duen traman-kulu hori gure gauzetarako bakarrik gordetzea. Globalki pentsatu beharra dago, inperioaren bihotzean gertatzen direnei erreparatu behar diegu gure ikuspuntu autokonplazientearekin. Izan ere, joan den astean frantziparrak jota egon garen bitartean, usamerikan ere gauza inportanteak gertatu dira: Donald Trump eta Joe Biden aurrez aurre jarri ditu CNN telebista kateak eta, labur esateko, AEBetako presidente Demokratista asto gorriarenak eta urdinarenak hartuta atera da.

Gauzak hasieratik zeukan itxura txarra, historiako debate presidentzial potroximelena baitzen: Trumpek eta Bidenek, Bidenek eta Trumpek, elkarren adinak batuta 159 urteko errekorra lortu dute –ohar mentala: “gerontokrazia” kontzeptua berreskuratu–. Batak gastatu dituen 78 egutegien zama hobeto disimulatu zuen ordea, bere ohiko gezur eta larderia festarekin; besteak berriz, 81 urterekin, estupore katatonikotik gertu pasa zuen debate erdia. Bidenen problema handiena ez da, noski, daukan adina –galdetu gazatarrei bestela, ea zer iritzi duten AEBen atzerri-politikaz–, baina kontxo, norbaiti botoa emateko orduan, bada faktore bat: hautagai bati eska dakiokkeen minimoa da agintaldia bizirik bukatu dezakeela argi samar erakustea. Bidenek esaldiak bukatzeko ere problemak zituen. Errukarri zegoen.

Ikusitakoak ikusita, ultraeskuinaren ardailarekin kezkatuta dabilen edozeinek erabil dezake hemendik aurrera euskal kontsolagailu ideologikoaren bertsio europarra: egia da, kontinente zaharrean oso ilun dago kontua. Baina gutxienez oraindik ez gara iritsi faxismoa pena emanez garaituko dugula pentsatzera. ●



Jarioka

Asmatu hitz ezkutua... Kontuz hitz debekatuekin!



Zure taldeak hitz hau asmatu behar du...

Abantaila	Garantia	Suziria	Taberna
<ul style="list-style-type: none"> Onura Hobaria Probetxua Lehenengoa Etekina Aurrena 	<ul style="list-style-type: none"> Bermea Ziurtatu Abala Etxea Erosketa Hipoteka 	<ul style="list-style-type: none"> Jaia Espazioa Kea Lehertu Piroteknia Festa 	<ul style="list-style-type: none"> Jatetxea Edaria Pintxoa Topalekua Ostatua Benta

... baina ezin dituzu hitz hauek erabili



Eta kontuz, denbora mugatua duzu!

Trebezia komunikatiboa, azkartasuna eta ezagutza bultzatzen dituen mahai-jokoa.

+4 lagun

1.200 hitz baino gehiago asmatzeko

323 karta (18 komodin)



Prezioa **25 €**

Bidalketa gastuak 5€. Bidalketa doan 40€-tik gorako erosketetan.

Kamiseta **17 €**

Poltsa **10 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
BIZUM bidez ordaindu daiteke.